

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA
KULTURAN



2022

Izenburua: «Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa kulturean»

Argitaratzailea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier kalea 36. 01005-Gasteiz

Egilea: Red2Red

Data: 2022ko ekainean eguneratua

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA.....	4
2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK.....	9
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN.....	9
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK.....	17
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA.....	28
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA.....	31
2.5. BERDINTASUN-ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK.....	35
3. LEGEDIA.....	40
4. DATU-ITURRIAK.....	41
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK.....	44

1. TESTUINGURUA

Kultura funtsezko motorra da gizarte orotan, bi elementu integratzen baititu: alde batetik, ekoizpen-sektore bat da, gero eta baliabide ekonomiko gehiago sortzen dituen — Balio Erantsi Gordinaren (BEGd) % 2,5 Bilbon, % 2,6 Donostian eta % 1,6 Gasteizen, 2019an (Eustat)—. Aldi berean, kultura-jardueraren fruituak identitatearen eta gizarte-kohesioaren iturri dira; hots, ideia eta iruditeria bateratuak eraikitzeke espazioak.

Kultura hitzaren barnean herri baten jardunaren milaka adierazpen sartzen dira. Horrenbestez, ezinbestekoa da jorratzeko esparruak zedarritzea (arte bisualak, ikus-entzunezko arteak, arte eszenikoak, literatura edo musika).

Kultura-sektorea hazi egin da azken hamarkadetan garapen-, heziketa- eta ongizate-indizeek gora egin ahala. Haatik, hazkunde hori ez da proportzionaltasunez eman gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, eta **hala, kulturaren ekoizpenean nola kontsumoan desorekak handiak dira**. Bereziki garrantzitsua da nola irudikatzen diren emakumeak kultura-lanetan: oro har, **irudikapen horietan emakumeek gizartean duten presentzia eta zeregina gutxietsi** egin ohi da eta rola estereotipatzeko joera izan ohi da. Horrela, ikuspegi androzentriko bat nabarmentzen jarraitzen da, non gizonak diren subjektu aktiboak.

Genero-ikuspegi batetik, kultura-ekoizpenaren esparruan nabarmentzekoa da **maila kuantitatibotik so emakumearen presentzia zabala izan arren, presentzia hori murriztu egiten dela maila kualitatiboan**. Hau da, emakumearen presentzia adierazgarria duen sektore bat da, baina desoreka nabari da kultura-espezializazioetan prestatutako emakume kopuruaren eta sektorean enplegua izatera jauzi egiten dutenen artean. Jauzi hori bereziki nabarmena da erantzukizun-postuetan edo erabakiak hartzeko postuetan, emakumeen presentzia oso urria baita. Ez dirudi egoera asko aldatu denik *Guerrilla Girls* arte feministaren aitzindariak adierazi zutenetik ezen emakumeak obren inspiraziorako «subjektu - objektu» gisa edo zentroan bisitari modura soilik sartzen zirela museo-espazioetan. Ildo horretatik, **kultura-arloko zerbitzu eta baliabideetarako** irisgarritasuna neurtzeko datuek adierazten dutenez, emakumeek gehiago irakurtzen dute, liburutegi eta erakusketak gehiago bisitatzen dituzte eta zinema eta antzokira maizago joaten dira. Herri kultura ere ez dago desberdintasun horretatik at: EAEn (Euskal Autonomia Erkidegoa) emakumeak segregazio-egoerak pairatu ditu. Hori da Irun eta Hondarribiko Alardeen kasua, gerora aztergai izango dena.

Desberdintasun horien atzetik hainbat arrazoi daude. Zalantzarik gabe **ondoretasun patriarkala** oso indartsua da eta emakumeen gizarte-mugikortasuna kontrolatzeko modu gisa funtzionatzen du. Baina egiturazko baldintzei ere erreparatu behar zaie, hots, beste alor batzuetan emakumeek duten posizioan eragina duten gizarte-dinamikak nola antzematen diren kultura-esparruan ere. **Emakumeak dira, oraindik ere, zaintzan gehien aritzen direnak**: etxea, seme-alabak eta adinekoak zaintzen dituzte, eta zeregin horietan gizonak baino askoz denbora gehiago ematen dute egunero.

Ama-betebeharretan aritzeagatik, haien karrera profesionalak laburragoak izaten dira eta ez hain biziak. Horregatik, desoreka dago kultura-sektorean lan egiteko moduan dauden emakumeen kopuruaren eta enpleguaren errealitatearen artean, eta hortik dator lanbide-eremuan emakumeek duten presentziaren eta erantzukizun-postuetan dutenaren arteko distantzia ere. Egoera horretan, genero-berdintasuna lortzeari dagokionez eragina duen beste elementu bat soldata-arrakala da. Estereotipoek, emakumearen karrera profesionala oztopatzeaz gain, kulturaren bidez garapen pertsonala izatea eragozten dute, baita herri-adierazpen batzuetan, Alardeetan, adibidez, berdintasunean parte hartzea ere.

Oraindik ere **androzentrismoa** da nagusi kultura-esparruko agendetan; unibertsitatea, erakunde politikoak, kultura-erakundeak, museoak, antzerkiak, jaialdiak eta EAEn antolatzen diren kultura- eta arte-arloko ekitaldi gehienak gizonek zuzenduta daude. Horren ondorioz, are zailagoa da hainbat mendetako dinamika bat haustea, non kultura gizonezkoaren begiradaren bitartez idatzi baita.

Ikusgarritasun falta horrek areagotu egiten du emakumeek kulturaren duten presentziaren arazoa, eta zaildu egiten du haien ibilbide profesionala; izan ere, besteak beste, horrexegatik dute emakumezko artistek **gizonek baino konfiantza txikiagoa beren buruarengan eta beren lanean; bekak lortzerakoan edo proiektuak aurkezterakoan**, ikusten dugu emakumezko artistek proiektu txikiagoen aldeko apustua egiten dutela, eta, ondorioz, emakumeen presentzia urria dela ekoizpen handietan, ikusgarritasun handiena dutenetan eta, beraz, genero-irudikapenak sendotzen laguntzen dutenetan.

Zaintzen arretaren ondorioz, **aisialdirako denbora gutxiago dago**. Hala eta guztiz ere, emakumeak dira kultura-kontsumitzaile nagusiak, baina kontsumo horiek intentsitate handiagokoak izan ohi dira etxeko presentziarekin bateragarriak diren eremuetan, eta murriztu egiten dira, aldiz, eremu publikoagoetan. Emakumeek gehiago irakurtzen dute eta gizonak gehiagotan joaten dira rock kontzertuetara. Horrela, kultura ulertzeko moduak betikotu egiten dira, eta zenbait alor tasun femeninoekin lotzen dira. Gainera, ezinbestean nabarmendu behar da, kultura gizonek adina edo haiek baino gehiago kontsumitzeko, emakumeek askoz ere ahalegin handiagoa egin behar du tela; izan ere, **desabantaila-egoera bikoitzetik** abiatzen dira, denbora libre gutxiago izateaz gain, ahalmen ekonomiko txikiagoa baitute.

Indarrean dagoen araudiak zenbait tresna ditu kultura-eremuan zeharka edo modu espezifikoan eragiteko. Nazioartean, «Kulturarako Europako Agendak» dio Europako Batzordeak *gizarteratze-ekintza espezifikoak garatu behar dituela kulturaren bidez, Europa Sortzailea eta Erasmus+20 programen bitartez, eta hautaketa-irizpideak hartuko dituela kontuan Europa Sortzailea programak genero-berdintasuneko baldintzetan susta dezan proiektuen kudeaketa* (2019), nahiz eta aipamen horretatik harago Agendak ez duen genero-ikuspegia zeharka txertatzen. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Itunak hirugarren artikuluan dioenez, «*itun honetan parte diren estatuek konpromisoa hartzen dute gizonek eta emakumeek ituneko eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztiak berdintasunez izango dituztela ziurtatzeko* ».

Estatu mailan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 26. artikulua ondorengo dio sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualaren eremuko berdintasunaz:

1. Agintari publikoek, euren eskumenen esparruan, zainduko dute emakumeen eta gizonen arteko **tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa** eragingarri izatea, sorkuntza eta ekoizpen artistiko nahiz intelektualari eta hori hedatzeari lotutako edozein aldetan.

2. Zuzenean edo zeharka, kultura-kudeaketaren sistema egituratzen duten antolakunde, agentzia, erakunde eta administrazio publikoetako gainerako egiturek ondorengo jarduerak gauzatuko dituzte:

a) Kulturari **emakumeen sustapen bereziaren alde egiteko** ekimenak izatea, eta emakumeen bereizkeria, egiturazkoa edota difusoa, borrokatzea.

b) **Emakumearen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektual laguntzeko** politika aktiboak; politika horiek oinarrituko dira izaera ekonomikodun pizgarrietan, aukera-berdintasun eragingarrirako baldintzak sortzeko helburuarekin.

c) Eskaintza artistiko eta kultural publikoari dagokionez, emakumeen eta gizonen **presentzia orekatua** sustatzea.

d) Organigrama artistiko eta kulturean dauden **organoetan, halakoak kontsultakoak, zientifikoak nahiz erabaki-hartzaileak izatea gorabehera, ordezkariak orekatua** errespetatu eta bermatzea.

e) Emakumeen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualari begira **ekintza positiboko neurriak hartzea**, nazio-mailako nahiz nazioarteko elkartruke kultural, intelektual eta artistikoa ahalbidetuz, eta hitzarmenak sinatzea antolakunde eskudunekin.

f) Orokorrean, eta lege honen 11. artikulua babesean, emakumeen ekoizpen eta sorkuntza intelektual, artistiko nahiz kulturalaren inguruko **desberdintasun-egoera guztiak zuzentzeko** beharrezkoak diren ekintza positibo guztiak.

2022-2025 aldirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako III. Plan Estrategikoaren (EGBEPE) dokumentuan Espainiako Gobernuaren XIV. Legegintzaldirako Programaren konpromisoa jasotzen da, non 6. ardatza kulturari eta kirolei buruzkoa baita, eta kultura-eremuan berdintasunari buruzko ekintza plan bat bultzatzeko helburua ezartzen baita, ikusezin bihurtutako emakumezko egile, artista eta sortzaileei ikusgarritasuna emateko eta eremu horretan dauden genero-arrakalak ezabatzeko, kultura-adierazpen guztietan berdintasuna sustatzeko.

Hala ere, beste sektore batzuetan ez bezala, Estatuan ez dago kultura-arloko lege orokorrik. Horren ordean, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea jo ohi da, eta genero-ikuspegirik gabea da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legea» funtsezko mugarrria da EAEn berdintasun-politikak bultzatzeko. Lege horren hirugarren tituluan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko zenbait neurri arautzen dira, hainbat esku hartzeko arlotan: besteak beste, kultura eta komunikabideak. 25. artikuluan, kultura-jarduerari buruzkoan, honako hau dio:

1. EAEko administrazio publikoek, zeinek bere eskumen-eremuan, behar beste neurri hartu behar dituzte, **bai sexuan oinarritutako diskriminazio oro saihesteko, bai sustatzeko** emakumeek zein gizonek **parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua** izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan. Lege honen ondorioetarako, kultura-jardueratzat hartzen dira, besteak beste, artistikoak, jai-giroan egiten direnak, oroitzapenezkoak, kirol-jarduerak¹ eta euskararen hizkuntza-normalizazioaren arloan egindakoak.

Debekatu egiten da gune publikoetan emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egitea.

2. EAEko administrazio publikoek ezingo dute inolako laguntzarik eman eta haien ordezkariak ezingo dute ordezkari gisa parte hartu sexuan oinarrituta diskriminatzen duen zein emakumeenganako gorrotoa sustatzen duen ezein kultura-jardueratan. Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea eta estereotipoak gainditzea bilatzen duten jardueretan parte hartzea sustatuko da.

3. EAEko administrazioek publikoek **bultzatu egin behar dute gizarte-memoria egitea eta berreraikitzea** genero-ikuspegitik, bai eta memorializazio-prozesuak ere. Horretaz gain, berdintasunaren aldeko kultura-politikak sustatuko dituzte, ondareari eta kulturari emakumeek egin dizkieten ekarpenak ikusgai egiteko eta estereotipo eta aurreiritzi sexistak gainditzeko; eta emakumeen presentzia sustatu behar dute, emakumeek ordezkari gisa txikiegia duten eremuetako erakusketa eta ekoizpen artistiko eta kulturaletan. Horretarako, beste neurri batzuen artean, parte hartzeko eremu zabalak eta laguntza publikoak ezarriko dituzte, edo daudenak egokituko.

4. Bereziki, EAEko administrazio publikoek **bultzatu egin behar dute funts publikoekin finantzatutako museo eta arte-zentroetan:**

a) Genero-ikuspegia txerta dadila haietako **hezkuntza-programetan, bisita-programetan eta bestelakoetan**, eta, bereziki, haur eta gazteentzako programetan.

b) Genero-ikuspegia txerta dadila **erosketa-irizpide eta -protokoloetan eta obrak eskuratzeko lehentasun-ildoetan**, bai eta erakusketa-politiketan ere, horrela lortuko baita emakumezko artisten erakusketak ugaritzea eta emakumeen eta gizonen ordezkari gisa orekatua izatea.

c) **Ordezkaritza orekatua susta dadila** erabakiak hartzeko egitura guztietan, besteak beste, patronatuetan, batzorde artistikoetan eta epaimahaletan.

¹ Kirol-jarduerak «Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa kiroletan» (2021) gidan landu dira xehetasunez

5. EAEko administrazio publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte **kirol-modalitate guztietan**, bai aisialdian, bai lehiaketetan, emakumeek eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko EAEn egiten diren praktika eta jardueretan.

6. EAEko administrazio publikoek kirol-jarduerak estereotipoetan oinarritu gabe hautatzea sustatuko dute, bai eta emakumeen zein gizonen kirol-jarduerak babestea ere, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. Era berean, bermatuko dute badaudela laguntzak gehienbat emakumeek praktikatzeko dituzten kirol-modalitateetarako, eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna dagoela sariak eta aitortpenak ematerakoan.

Gainera, EAEn kultura-politikan eragina duten hiru plan estrategiko daude: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (2018-2022) eta Euskararen Agenda Estrategikoa, zeharka, eta Kulturaren Plan Estrategikoa, berariaz.

Dena dela genero-berdintasunerako **arauak** ez dira aplikatzen kultura-esparru gehienetan. Azterlan honetarako kontsultatu diren datuek adierazten dutenez, kargu politikoetan eta sariketarako epaimahaietan presentzia-orekarako joera dago, baina errealitatera jaitsiz gero, nabarmena da ordezkari-tza-oreka oso urrun dagoela oraindik ere. Sektore batzuetan azken urteotan joera zerbait zuzendu dela ikus daiteke, baina ezinbestekoa izango litzateke estatistikak egiten jarraitzea joera hori mantendu egiten den ala soilik unean-uneko piko bat izan ote den ikusteko. Gainerakoan, ibilbide luzeko erakundeetan, esate baterako, museoetan edo orkestra eta antzokietan, emakumeek zuzendaritza-postuetan duten presentzia ia ezdeusa da.

Horrenbestez, adierazitako esparru bakoitzean dauden desberdintasun-mailei erreparatzea derrigorrezkoa dela dirudi: kultura-ekoizpena, kultura-produktu eta -zerbitzuen kontsumoa eta arte eta kulturako irudikapenak. Desberdintasun horien jatorriak eta horiek errepikatzeko moduak ulertzea lagungarri izango da emakumeek protagonismo handiagoa hartu eta kultura-eremuko politiken diseinuan parte hartu ahal izan dezaten, haien ahotsa entzunez eta haien historiaren narratzaile bihurtuz.

2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Sarreran aurreratu den moduan, kultura-eremuan generoaren arabera desberdintasunak handiak dira: emakumeek presentzia adierazgarria dute publiko kontsumitzaile gisa, kultura-sektoreko lanpostuetan ia presentzia orekatua da eta, hala ere, sorkuntzaren lan-merkatuan duten pisua murriztagoa da ia sektore guztietan, bereziki erantzukizuneko eta erabakiak hartzeko postuetan. Are urriagoa da kultura zabaltzen den zentroetan sortzaile gisa duten presentzia, hala nola museoetan, antzokietan, zinema-aretoetan... Desberdintasun hori kultura-mundutik sortutako irudikapenetara eramaten da: kultura-produktuetan dabiltzan ideiek eta irudiek emakumeek gizartean duten zeregina minimizatzen dute, eta behin eta berriz kokatzen dituzte mendeko posizioetan.

- **Kultura- eta sorkuntza-ekoizpena**

«Ikuspegiak. Arteei eta kultura-industrieari buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa» txostenaren arabera (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019), emakumeek % 47,3ko **presentzia** dute EAEko kultura-sektoreko **lanpostuetan**. Emakumeen enplegua nagusi da arte bisualetan (% 54,9) eta literaturan (% 60,6), baina erdia baino gutxiago da arte eszenikoetan (% 49,6), musikan (% 44,4) eta ikus-entzunezkoetan (% 43,2).

Haatik, ez dago korrelaziorik emakumeek kultura-sektoreko lan-merkatuan duten irisgarritasunaren eta kultura-arlo bakoitzean duten **ikusgarritasunaren** artean. EAEko museoak eta arte-zentroak erakunde publikoak badira ere, eta proposamenak eratzeko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 04/2005 Legeko berdintasun-manuak jarraitu beharko balira ere, argi dago desberdintasuna oraindik ere agerikoa dela. «Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan» txostenaren arabera (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016), 2015ean EAEko museoek antolatutako 24 erakusketetatik, zazpi baino ez ziren izan (% 18,4) artista emakumei modu eskusiboan eskainiak; % 32,2 arte-zentroetan, azken horietako ezaugarria egitura moderno, arin eta dinamikoagoa izanik. Zentroetan eta museoetan antolatutako erakusketa mistoetan, gizonezko artistak gehiengo izan dira beti.

Arte Bisualetako Emakumeen Elkarteak Estatu mailan egindako txosten berriago batek (2022) agerian utzi du desberdintasun handia dagoela emakumezko eta gizonezko artisten presentzian ARCO- Arte Garaikideko Nazioarteko Azokako erakusketa-galerietan (nazioarteko zirkuituko arte garaikideko azoka nagusietako bat da). 2022ko ARCOko Espainiako galerien azterketaren emaitzen arabera, 622 artistetatik 196 baino ez ziren emakumeak; hau da, guztien % 31,5. Txostenak berak nabarmentzen duen alderdi garrantzitsu bat zuzendaritzaren ardura duen pertsonaren eta artisten arteko harremana da. Emakumezko artistek ordezkari

handiagoa izaten dute emakumeek zuzendutako galerietan. 2022ko ARCON emakumezko artisten %41ak (196 emakumezko artistetatik 80) emakumeen zuzendaritzaren babesa izan du, eta gizon baten zuzendaritzapean emakume artisten %35 daude (196etatik 68).

Museo eta arte-zentroetan presentziari dagokionez bi sexuen **artean dagoen aldeak** eragin nabaria du emakumeen lana erakusterako orduan. Museoek beste erakusketa-espazio batzuek baino prestigio eta ikusgarritasun handiagoa dute eta, oro har, aurrekontu handiagoak izaten dituzte. Horri esker, anbizio handiagoko ekoizpenak daukate eta komunikazio-kanpainetarako bitarteko gehiago dituzte tokiko mailan, Espainia mailan eta, are, nazioartean. Oro har, zenbat eta aurrekontu handiagoa, orduan eta ikusgarritasun handiagoa. Arestian aipatutako azterlanean (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016) EAeko museo eta arte-zentroetan egindako erakusketei buruzkoan, emakumeen erakusketen ekoizpenaren batez besteko kostua 18.360 eurokoa zen eta gizonena 29.880 eurokoa, ia bikoitza. Aurrekontu-zuzkidura handiago horrek badu eragina katalogoaren ekoizpenean ere. Horrek kritikari (gehienak gizonak) eta gainerako profesionalen artean lana hedatzea ahalbidetzen du. Katalogoa, gainera, legitimazio- eta sustapen-tresna indartsua da arte-esparruan. Horrez gain, nabarmendu behar da museoetan eratzen dela arte-bilduma eta horixe dela lurralde bateko irudi kolektiboa eta historiaren baterako ikuspegia islatzen duena. **Zinemagintza-alarrean**, ez dago datu zehatzik EAeko film luzeen ekoizpenei buruz, baina, adibide gisa, Goya sarietan edo Donostiako Nazioarteko Zinemaldian emakumeek duten presentziari errepara dakioke (biek eragin handia dute eremu horretan).

Goya sariei dagokienez, Zinemagintzako eta Ikus-entzunezkoetako Emakumeen Elkarteak emakumeen hautagaitzak aztertu zituen, kategoriatan, 2021ean, eta ondorioztatu zuen 36 sarietatik soilik lautan —jatorrizko gidioan, jatorrizko musikan, jantzien diseinuan eta film dokumentalean— zegoela parekotasuna sari horietara aurkezten ziren emakumeen eta gizonen kopuruan. Gainerako sarietan, aldiz, hautagaien artean emakumeen ordezkari txikiagoa nabari da, eta atal bitan (zuzendaritza artistikoa eta film labor dokumentala) ez dago emakume bakar bat ere saria jasotzeko hautagaien artean.

Bestalde, «Donostia Zinemaldian genero-identifikazioari buruzko txostenean» (Donostia Zinemaldia, 2021) adierazten denez, Zinemaldiko hautaketa-batzordeak ikusitako 3.218 filmetatik, honako hau zen emakumearen ordezkari aztertutako kategorietan: %30,3 zuzendaritza, %38,4 ekoizpena, %32,1 gidioa, %16,7 argazkigintza, %12,4 musika eta %31,6 muntaia. Gainera, txosten berean EAEn ekoiztutako 35 filmen analisia egiten da; horietan, zuzendaritzako (%42,1) eta produktzio (%39,4) kategorietan emakumeen presentzia pixka bat handiagoa da, eta gizonen presentziaren ehunekoak gaitu ere egiten dute gidioan (%51,0) eta muntaian (%54,8).

1. taula. Emakumeen eta gizonen ehunekoa EAEn ekoiztutako filmetan (Donostia Zinemaldia 2021)

	Emakumeak	Gizonak	Ez-Bitarra	Informaziorik gabe
Zuzendaritza	% 42,1	% 55,3	% 2,6	% 0
Produktzioa	% 39,4	% 54,5	% 0	% 6,1
Gidoia	% 51,0	% 44,9	% 2,0	% 2,0
Argazkia	% 24,4	% 70,7	% 0	% 4,9
Musika	% 35,1	% 35,1	% 2,7	% 27,0
Muntaia	% 54,8	% 42,9	% 2,4	% 0

Iturria: Donostia Zinemaldiaren 2021eko edizioako filmen genero-identifikazioari buruzko txostena (Donostia Zinemaldia, 2021)

Literaturaren esparruan, kontsumitzaileen ehunekoaren (liburu-erosle handiak emakumezkoak dira) eta sektorean duten presentziaren arteko aldea deigarria da. Euskal Autonomia Erkidegoan, 2020ko Kultura-ohituren Panelaren arabera (Kulturaren Euskal Behatokia, 2020), COVID-19aren pandemiaren aurreko datuak kontuan hartuta, emakumezko irakurleen ehunekoa (% 86,6) gizonetzkoena baino nabarmen handiagoa da (% 67). Aldiz, ISBN² duten liburuen Espainiako edizioaren estatistikatik ateratako datuen arabera (Kultura eta Kirol Ministerioa, 2021), 2021ean egile bakarrarekin erregistratutako lanen artean % 37,9 baino ez ziren emakumeenak.

EAEko emakumezko idazleei dagokienez, Jon Kortazarrek *Rassegna iberistica* aldizkarirako (2021) argitaratutako «Escrituras vascas de mujer» sail monografikoak nabarmentzen du EAEko emakumezko egile batzuek azken urteotan izandako oihartzuna. Prozesu-kulturaletan, Kortazarrek dio Euskadi Literatura Sariaren irabazleei erreparatuta, adibidez, argi ikusten dela emakumezko egileen presentzia handitu dela sorkuntzaren esparruan. Azken urteotan, Eider Rodriguezek (2018ko Euskadi Saria), Irati Elorrietak (2019koa) eta Karnele Jaiok (2020koa) lortutako sariek «hautsi egin zuten emakumezko idazleen lana Haur eta Gazte Literaturaren arloan baloratzeko joera». Gainera, «EAEn, sorkuntza- eta industria-ikuspegitik, antzerki-, dantza-, liburu- eta musika-esparruan berdintasunak duen egoeraren diagnostikoa» txostenak (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019b) euskaraz sortzen duten 325 emakumezko egile gazte zenbatu ditu; hau da, egile berri guztien % 68,5 (474 idazle gazte emakumezko).

Musikaren arloan ere —kasu honetan instrumentista gisa— gutxiengoa izaten dira emakumeak; «Musika sorkuntzako emakumeen eta gizonen egoera EAEn» txostenaren arabera (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020), % 32,6 ingurukoa da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kasuan, eta % 33,8koa Bilboko Orkestra Sinfonikoarenean.

²ISBNren Espainiako Agentziaren arabera. *International Standard Book Number (ISBN)* liburu bakoitzari zenbaki-kode bat emateko nazioarteko zenbaki bat da. Edozein libururen identifikazioa koordinatzea eta normalizatzea ahalbidetzen du, hura aurkitzeko eta merkatuan errazago zirkulatzeke, eta haren funtsezko helburua den informazio bibliografikoaren hornitzaileen eta erabiltzaileen lankidetzak sustatzen du.

2. taula. Emakumeak eta gizonak Euskadiko eta Bilboko orkestra sinfonikoetan (2020)

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa	31	64	% 32,6
Bilboko Orkestra Sinfonikoa	27	53	% 33,8

Iturria: Musika-sorkuntzako emakumeen eta gizonen egoera EAEn (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020)

Txosten batzuetan adierazten denaren arabera, Donostiako Orfeoia ordezkariak eraturako kuotak betetzen dituen erakunde bat da, emakumeak % 50etik gora izanik. Hori, oro har, berezkoa du ahots-musikak; izan ere, emakume-ahots gehiago behar dira, ahots-tonuak oreka izango badu. Pop musikari dagokionez, arazoa antzekoa da. Emakumeak eta Musika Elkartearen arabera, 2020ko musika-jaialdietan, Estatu mailan, emakumezko artistak % 20,5 izan ziren. Emakumeek jaialdietan duten presentziak goranzko joerarekin jarraitu arren (2018an % 13 baino zertxobait gutxiago ziren, eta 2019an, % 19,2), emakumeen presentziak oso txikia izaten jarraitzen du. 2020ko BBK Jaialdiaren (Bilbon egin zen) kasuan, zehatz-mehatz, 25 emakume eta 63 gizonek hartu zuten parte; hau da, emakumeen presentzia % 28,4koa izan zen. Arrakala horren aurrean, duela gutxi emakumezkoen jaialdi eskusiboak sortu dira berdintasunaren aldeko aldarrikapen gisa.

Júlia Díazek³ (2022) Espainiako sei musika jaialdi ezaguneneko 2022ko karteletan buruzko azterlana egin du (Sónar, BBK, Primavera Sound, FIB, Mad Cool eta Arenal). Artista guztiak kontuan hartuta, bai bakarlariak bai jaialdi bakoitzean parte hartzen duten taldeetako kideak, ikusten da jaialdi bakar batek ere ez duela presentzia orekatu, baina bakarlariei, taldeetako kideei eta kartel-buruei buruzko azterketa berezia kontuan hartuta, ordezkariak nabarmen aldatzen da:

- Emakume eta gizon **bakarlarien** presentzia orekatua da sei jaialdietatik lautan. Zehazki, Bilbon egiten den BBK Jaialdian, bakarlari guztien artean, emakumeak % 42,9 ziren. Sei jaialdi horietan artista gisa parte hartu behar zuten pertsona guztiak kontuan hartuta, 1.861 pertsonetatik 509 baino ez dira emakumezkoak; hau da, emakumeen ordezkariak % 27,4koa da.
- **Taldeetako** kideei dagokienez, desberdintasun-foku bat ikusten da. Izan ere, talde gehienak gizonen bakarrik osatzen dituzte edo formula honi jarraitzen diote: hiru gizon eta emakume bat. Sei jaialdietako bakar batean ere ez da presentzia orekatua lortzen, eta BBK Jaialdiak taldeetan emakumeen ehuneko handiena duen arren (% 25,2), jaialdi hori bereziki aztertuz gero, ikus daiteke 36 taldeetatik lau baino ez daudela soilik emakumez osatuta, eta beste bostetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua dela; gainerako 27 taldeetan, aldiz, gizon gehiago daude emakumeak baino (horietako 18, soilik gizonen osatuak).

³ [Júlia Salanderren profilak \(@salander33\)](#) sare sozialetan argitaratutakoetik ateratako datuak. 2022/05/05ean hemen kontsultatua:

- Arrakala nagusia **kartel-buruen** ingurukoa da, non normalean garrantzitsuentzat jotzen dituzten taldeak/artistak kokatzen baitituzte jaialdiek. Jaialdi horietako hirutan ez dago emakumerik kartel-buru, eta gainerakoetan emakumeen presentzia oso urria da. Zehazki, BBKn, kartel-buruen % 7 baino ez dira emakumeak.

3. taula. Emakumezko artisten ehunekoa musika-jaialdietan

	Emakumeak (%)			
	Artistak, guztira	Bakarlariak	Taldeakideak	Kartel-buruak
Sónar	% 32,2	% 45,3	% 20,3	% 0
BBK	% 30,4	% 42,9	% 25,2	% 7,0
Primavera Sound	% 30,0	% 54,5	% 21,0	% 21,1
FIB	% 20,2	% 27,3	% 12,0	% 0
Mad Cool	% 15,6	% 51,4	% 11,3	% 18,7
Arenal	% 13,8	% 13,6	% 18,2	% 0

Iturria: ¿Qué lugar ocupan las mujeres en los festivales? (Júlia Díaz, 2022)

Arte eszenikoei dagokionez, antzerkian zinemagintzan dauden arazo bera ageri da: emakumezko ikusle gehiago, baina emakumeek idatzi eta zuzendutako lan gutxiago. Kultura eta Kirol Ministerioaren «Indicadores estadísticos culturales vinculados a las artes escénicas y musicales y desgloses por sexo» (2022) txostenaren arabera, Espainian, arte eszenikoetako ikuskizunetara joan zen populazioari dagokionez, emakumeen ehunekoa handiagoa da gizonena baino. Clásicas y Modernas Elkarteak, Kulturaren genero-berdintasuna bultzatzeko elkarteak, 2015/2016 denboraldiari buruzko zenbait datu argitaratu zituen 2017an. Bertan adierazten denaren arabera, Espainian jokaturako lanen % 18 soilik ziren emakumezkoek idatziak, eta haien zuzenduak, aldiz, % 22. Dantzan, emakumeen proportzioa nabarmen handiagoa da: taularatutako koreografiaren % 44an egilea emakumezkoa zen. Dena den, datu hori ez dator bat dantza-ikasketak egiten dituzten edo dantza-taldeak osatzen dituzten emakumeen ehuneko handiekin. (Clásicas y Modernas, 2017). Desberdintasunak nabarmenagoak dira EAEn **herri-kulturaren** alorrean, tradizioaren pisua oztopo dela baitirudi.

2017tik aurrerako daturik ez badugu ere, adibidez, emakumeek bertsolaritza-txapelketetan duten parte-hartzea % 20koa da, nahiz eta presentzia handitzen ari den pixkanaka alor horretan. Desoreka alardeetan heltzen da muturrera. Irungo Alardean, Frantziako tropen aurka 1522an lortutako garaipena oroitzen da, eta EAeko festa jendetsuenetako bat bilakatu da. Aitzitik, emakumeen parte-hartzea kantinera izatera mugatzen da, soldatu izatea eragotzita. 2017an 19 kantinera eta 8.000 soldatu irten ziren. Alarde Mistoa 1998. urtean sortu zen eta 1.000-1.500 pertsona inguruk parte hartzen dute. Haatik, Alarde hori arbuia egiten dute irundar askok eta, gizonezkoen Alardeari ez bezala, alkateak ez dio harrerarik egiten udaletxean. Hondarribiko Alardean, Frantziako tropek 1638. urtean egindako setioaren aurrean herriak erakutsitako erresistentzia ospatzen da. Bertan, 5.000 gizonen eta 20 kantinerak hartzen dute parte: Alarde mistoan 500 pertsonak parte hartzen dute; gehienak, emakumezkoak. Euskal dantzaren esparruan (EAEn gehien hedatutako euskal adierazpideetako bat) ez dago emakumeen parte-

hartzeari buruzko datu askorik, baina dantza horietako askotan jazoera historikoak ospatzen direnez edo kofradia profesionalen bateko patriari egindako gorespendantzak direnez, tradizionalki gizonak interpretatu izan dituzte eskusiboki. Haatik, XX. mendearen erdialdetik gaurdaino gizonak dantzarekiko agertzen duten interesak behera egin du. Horren ondorioz, emakumeek txanda hartu behar izan dute derrigorrean, besteak beste, Arizkungo Sagar Dantzan, Uztai Haundi Dantzan edo Zinta Dantzan. Gaur egun, Kultura-ohituren Paneleko 1. sortako datuen arabera, emakumeen % 16,67k eta gizonen % 5,88k hautatzen dute dantza kultura-jardun modura beren aisialdian.

- **Emakumeen irudikapena kulturean**

Kulturean generoaren eragina aztertzeke ez da soilik behatu behar emakumeek sektore bakoitzean duten presentzia. Ezinbestekoa da **diziplina ezberdinetatik emakumez egiten diren irudikapenak ere** aztertzea. Kulturetik abiatuz eraikitzen da herri baten irudi eta kontakizun historikoa. Hori dela eta, funtsezkoa da kultura-adierazpenetan igorri ohi diren mezuei erreparatzea. **Ikus-entzunezko arteen** sektorea bereziki garrantzitsua da, gizarte-mailan partekatutako irudikapen asko sortzen baititu. Gainera, herritarren ehuneko handiago batengana iristen da, masa-hedabideetatik zabaltzen da eta. Adibidez, zinemagintzak edo antzerkigintzak fikzio-esparrutik Espainiako populazioaren profilaraz diotena errealitateara eramango bagenu, Espainian emakumeak gizonak baino % 13 gutxiago izango lirateke; haiek, oso gutxi izango lirateke independenteak eta beren bizitzaren protagonista; eta 45-65 urte bitarteko emakumeak desagertu egingo lirateke ia, nahiz eta horietako zenbait aurrerago berriro agertu, amona kulturenaren egiteko. Hau da, fikzioak gaur egun islatzen duen profilaraz proportzio handiagoan eusten die kulture androzentrikoei, errealitatearekin alderatuta.

Espainiako Zentro Dramatikoaren «Informe Igualdad de las Artes Escénicas; análisis en la programación y equipos directivos» txostenaren arabera, **arte eszenikoetan** ere emakumezkoen ikusgarritasuna urriagoa da (Clásicas y Modernas Elkarteak egindakoa, 2015); 2013/2014 denboraldian emakumeek paper guztien % 41 jokatu zituzten eta gizonak, % 59.

AISGE Artista eta Antzezleen Elkartearen 2017ko azterlanaren arabera, Espainiako zinema-fikzioan, 2014-2016 bitartean ekoiztutako filmetako pertsonaien % 37,8 bakarrik ziren emakumezkoak. Emakumezkoak ziren protagonisten % 34. Desberdintasun horrek gora egiten du aktoreen adinak gora egin ahala: 45-66 urte bitartean, % 23,9ra jaisten da, eta 65 urtetik aurrera, % 19,3ra. Desberdintasun horiek mantendu egiten dira telesailetan, nahiz eta emakumeen presentzia hazten ari den geldiro (% 44,7). MAX 2021 sarieran, bederatzi sari mistoetatik⁴ hiru bakarrik eman zitzaizkien emakumei, eta horietako bat, «Antzerki-lanaren egokitzapen edo bertsio onena» kategorian, bi gizonekin partekatuta. Horrela, kategoria mistoetan saritutako hamabi pertsonetatik % 25 baino ez ziren emakumeak. Dantzan soilik izaten dituzte emakumeek paper protagonistak eta gizonak baino paper gehiago.

⁴ (1) Antzerki-egile onena; (2) Egile berri onena; (3) Antzerki-lanaren egokitzapen edo bertsio onena; (4) Ikuskizun eszenikorako musika-konposizio onena; (5) Koreografia onena; (6) Eszena-zuzendaritza onena; (7) Espazio eszenikoaren diseinu onena; (8) Jantzi-diseinu onena; (9) Argiztapen-diseinu onena.

Zinemagintzaren Akademiak (2021) 2021eko martxoaren 8an egindako ohar ofizial baten bidez adierazi zuen historian lehen aldiz ordezkariak orekatu lortu zela Goya sarietan, emakumeek Goya sariak % 50 lortu baitzituzten 35. edizioan, sariketaren zenbaketa orokorrean. Hala ere, nabarmendu behar da, ikus-entzunezkoen sektorean, emakumeen interpretazio gehienak nortasun propiorik gabeko pertsonaiei dagozkiela: gizonen andregai, emazte edo amak, eta prostituta asko. Haatik, profesional, polizia, suhiltzaile edo medikuen zereginetan gizonenak aritu ohi dira.

Arte bisualetako irudikapenak ikerlan luze baterako emango luke, baina historian emakumearen irudia erlijio-iruditeriarekin oso lotuta egon da alde batetik, eta beste alde batetik, ugariak dira emakumea gaizkia, bizioa, irudikatuz agertzen duten lanak. Era berean, hau ere nabarmentzekoa da: «Arte modernoko ataletako artisten % 5 baino gutxiago dira emakumeak, baina biluzien % 85 emakumezkoenak dira», *Guerrilla Girls* kolektibo feministak salatu zuenez (Pérez, M., 2020). **Literaturaren esparruan** ere, esparru artistikoan bezala, EAEn, nagusiki gizonenak izan da tradizioa, eta, tradizio horren pisuaren ondorioz, emakumezko protagonistak mende luzez emakume birjina eta emakume bekataria baizik ez dira izan, edo, bestela, tradizioen eta hizkuntzaren babesle. 1960ko hamarkada iritsita, euskarazko literatura modernizatu egin zen eta pertsonaia garaikideago eta konplexuagoak agertu ziren. Generoari buruzko ikerketarik ez dagoela, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan jaiotako emakumezko eta gizonen idazleak kontuan hartuta, pentsatzekoa da literaturan emakumezkoen irudikapena gizarte-errealitateak hurbilago dagoela.

Kultura-kontsumoa

Emakumeek kultura-ekoizpenean presentzia eskasa duten arren eta kulturaren emakumeen ordezkariak urria bada ere, beraien dute kultura-kontsumoan protagonismo nagusia. 2020ko Kultura-ohiturei buruzko Panela (Kulturaren Euskal Behatokia) datuen arabera, emakumeek gizonen baino **kultura gehiago kontsumitzen dute**. Lehenago, COVID-19aren pandemiaren aurreko Paneleko datuak aurreratu ziren, non adierazten zen emakumezko irakurleen ehunekoa (% 86,6) gizonen irakurleena baino handiagoa dela. Egoera hori errepikatu egiten da zinemaren kontsumoari dagokionez (emakumeen % 81,4 eta gizonen % 77,3), ikuskizunetara joateari dagokionez (emakumeen % 68 eta gizonen % 47,4) eta liburutegietara joateari dagokionez (emakumeen % 64,9 eta gizonen % 42,3). Alde txikiagoarekin bada ere, erakusketetara (% 56,7) edo kontzertuetara (% 78,4) joaten diren gizonen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino (% 52,6 eta % 72,2, hurrenez hurren). Pandemia dekretatu ondoren jasotako datuek erakusten dutenez, bai emakumeentzat, bai gizonentzat, nabarmen murriztu dira kultura-jarduerak.

Irakurketan eta liburutegietarako bisitetan dago, kultura-jarduerari dagokienez, alderik handiena generoaren arabera. Irakurketa-kontsumoan emakumeak nagusi izatearen zergatia izan daiteke etxean, seme-alaben zaintzan nahiz senideen zaintzan, denbora gehiago pasatzea. Liburutegietarako bisitak, aldi berean, irakurketa-eraketan zaletasun handiagoarekin, liburuen mailegua doan izatearekin eta liburutegietako jarduerekin justifikatu daiteke, baita liburutegira joatea seme-alabak zaintzen diren bitartean egin daitekeen kultura-jarduerak bat delako ere.

EAEko Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestako (2019b) azken datuen arabera, gizonek batez beste denbora gehiago eskaintzen diote aisialdi pasibo eta aktiboko jardueri, jolasei izan ezik, non, bitxia bada ere, emakumeek 43 minutu gehiago ematen dituzten egunean. Egoera horren balizko azalpenetako bat ugalketa-lanen (etxeko lanak eta zaintzak) banaketan dagoen desberdintasunaren iraunkortasuna da; izan ere, pisu handiena emakumeek dute oraindik, emakumeek denbora gutxiago dute aisialdirako, eta, jokoan kasuan, adingabeen zaintzarekin bateragarria den jarduera bat da.

4. taula. EAEn aisialdi-jardueri eskaintako batez besteko denbora (orduak, minutuak) sexuaren arabera (2018)

		Emakumeak	Gizonak	E-G aldea
Aisialdi pasiboa	Irakurtzea, TB eta irratia	2,39	2,51	-0,12
	Ikuskizunak	2,09	2,13	-0,04
	Jolasak	2,00	1,57	0,43
	Arte-zaletasunak eta bestelakoak	2,05	2,27	-0,22
Aisialdi aktiboa	Kirol-jarduerak	1,19	1,37	-0,18
	Paseoak, txangoak	2,15	2,28	-0,13
	Ordenagailua eta beste gailu informatiko batzuk erabiltzea	1,14	1,45	-0,31
	Interneten erabilera	1,15	1,39	-0,24

Iturria: Denbora Aurrekontuen Inkesta (Eustat, 2019b)

Hala ere, aldeak oso txikiak dira kultura-kontsumo gehienetan, eta nabarmendu behar da emakumeak desabantaila bikoitzarekin abiatzen direla: alde batetik, gizonek baino askoz ere aisialdi-denbora gutxiago dute, eta, bestetik, soldata-arrakalaren ondorioz gaitasun ekonomiko txikiagoa dute. Beraz, agerikoa da emakumeek kultura kontsumitzeko prestasun eta interes handiagoa dutela. Eta kontsumitzaile gisa gehiengoa badira ere, deigarria da gizonak izatea kultura-arloko programazioak erabakitzen dituztenak, eta adierazpide gehienetan protagonistak eta ekoizleak. Horrenbestez, argi dago emakumei ez zaiela uzten erabakitzen zer kontsumitzen duten eta zer-nola irudikatuak izan nahi duten.

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Tradizioz, genero-rol eta -estereotipoen arabera, emakumeei egokitutako jarduerekin lotutako unibertsitate-ikasketa gehienetan gertatzen den moduan (zaintza, hezkuntza eta abar), hala EAEn, nola Espainian, kultura-arloko lanbideekin lotutako arte- eta humanitate-ikasketetako ikasle gehienak emakumezkoak izaten dira, eta joera hori mantendu egin da azken hiru hamarkadetan. Aitzitik, lanbide teknikoetako ikasketetan oraindik ere gutxiengoa dira emakumeak.

Hezkuntza eta prestakuntza

Kultura-jarduerekin eta -industriekin zerikusi zuzena duten goi-mailako ikasketa guztietan emakumeak gehiengoa dira, eta zenbait kasutan % 70etik gora ere bai, baita % 81,4 ere, kultura-ondasunen kontserbazioan eta zaharberritzean. Artean (**artista bisualek** beren prestakuntzarako gehien aukeratzen duten karreretako bat) 2019-2020 ikasturtean ikasleen % 70,9 emakumezkoak ziren. Artearen historian, erakusketa eta ekitaldietako komisariotzarako eta museo eta erakundeetako zuzendaritzarako atea irekitzen dituen prestakuntzan, emakumezko ikasleak % 68,7 dira, Eustaten Unibertsitate-estatistikaren arabera (2021).

Ikus-entzunezko arteen arloko beste ikasketa batzuetan, hala nola sorkuntza eta diseinuan eta ikus-entzunezko komunikazioan, % 72,8 eta % 57,1 emakumeak ziren, hurrenez hurren, ikasturte berean.

Espainiako hizkuntza eta literaturan (ikasleen % 65,4 emakumeak dira) eta Euskal hizkuntza eta kulturaren (% 70,8) emakume asko daude ikasleen artean (kultura-eremuarekin zerikusia duten esparruak dira).

5. taula. Kultura-eremuarekin lotutako ikasketetako ikasleak EAEn, sexuaren arabera (2019-2020 ikasturtea).

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)
Antropologia sozial eta kulturala	101	54	% 65,2
Artea	422	173	% 70,9
Ikus-entzunezko komunikazioa	340	255	% 57,1
Kultura-ondasunen kontserbazioa eta zaharberritzea	180	41	% 81,4
Sorkuntza eta diseinua	294	110	% 72,8
Artearen historia	333	152	% 68,7
Euskal hizkuntza eta kultura	46	19	% 70,8
Espainiako hizkuntza eta literatura	104	55	% 65,4

Iturria: Unibertsitate-estatistika (Eustat, 2021)

Ikus-entzunezko arteen esparruan, emakumeak gainordezkatuta daude, eta haien kopurua nabarmen murrizten da sektoreko lanpostu teknikoetara bideratuago dauden lanbide-heziketako zikloetan. kultura-eredu eta genero-estereotipo jakin batzuekin zuzenean lotuta dago hori; izan ere, eredu eta estereotipo horien arabera, gehienbat gizonentzat dira lanik gogorrenak (kamerak edo soinu eta argiztapen teknikariak, adibidez, ekipo handi eta astunak mugitu behar baitira). 2020-2021 ikasturtean, irudi eta soinuko erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetan emakumeak % 22,9 (erdi-mailako zikloan) eta % 29,2 (goi-mailako zikloan) baino ez ziren ikasle guztiekiko (Eustat, 2022).

Kultura-sektoreari lotutako Araubide Bereziko irakaskuntzei dagokienez (musika, dantza eta arte dramatikoak), egoera antzekoa da. 2020-2021 ikasturtean, ikasle guztietatik, emakumeak % 57,3 ziren musika-ikasketetan, % 64,2 arte dramatikoan eta % 93,4 dantza-ikasketetan. Hor ere nabariak dira genero-aurreiritziak. Izan ere, dantza ikaskuntza goiztiarra eskatzen duen diziplina bat da eta gutxi dira semeak txikitatik jardun horretan aritzera bultzatzen dituzten familiak.

6. taula. Musika, dantza eta arte dramatikoaren ikasketetako ikasleak EAEn, sexuaren arabera (2020-2021 ikasturtea)

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)
Musika	19.974	14.892	% 57,3
Dantza	128	9	% 93,4
Arte dramatikoak	34	19	% 64,2

Iturria: Unibertsitatekan kanpoko irakaskuntzei buruzko estatistika (Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2022)

Bekak, dirulaguntzak eta bestelako laguntzak

Dirulaguntzak eta bestelako laguntzak ezinbesteko tresna dira proiektuak garatzeko denbora jakin bat behar duten artisten garapenerako. Dirulaguntzak, diru-sarrerak lortzeko beste bide batzuk bilatzeko premia arintzen duen ekarpen ekonomikoaz gain, prestigio eta aitortzen artistikoaren erakusgarri ere badira.

Kultura-arloko gastu publikoaren (Eusko Jaurlaritzak, aldundiak eta udalak) bilakaera aztertzen duen Kulturaren Euskal Behatokiaren «#kulturazifra 2020» txostenaren arabera, 2010-2018 aldian beherakada txiki bat egon da; hala, gastu-sabaian gero eta aurrekontu gutxiago bideratzen ari da kulturara, aurrekontu guztizkoari erreparatuta.

Hala ere, beste azterlan berriago batzuen arabera, EAEko kultura-enpresak ekimen publikoaren mende daude; esaterako, ekimen publikoaren pisua % 10,3 da arte eszenikoaren diru-sarreretan (Kulturaren Euskal Behatokia, 2019). Dena dela, sexuaren arabera bereizitako datuak izateko, emakumeek arte bisualetan eta ikus-entzunezkoetan duten presentziari buruzko 2016ko azterlanera jo behar da (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016).

Iturri horren arabera, oro har, arte bisualetako laguntza-programetan (bekak, egoitzak, dirulaguntzak) emakumezko artisten presentzia % 40 ingurukoa da (Eusko Jaurlaritzaren laguntzen kasuan, emakumeek hamar eskaeratik lau egiten dituzte, jasotzen dituzten laguntzen proportzio bera, eta emakiden bilakaerak ekitaterako joera erakusten du; bestalde, ekoizpenerako laguntzek erakusten dute zenbatekoak gora egin ahala behera egiten duela emakumeen eskaera kopuruak).

«Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan» txostenarekin jarraituz (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016), Eusko Jaurlaritzaren Arte Plastiko eta Bisualetarako 2013 eta 2015 bitartean eskatu ziren dirulaguntzen % 45,8 emakumei eman zitzaizkien eta, era berean, emandako laguntza guztien % 45,8 jaso zituzten. Hona alderdi deigarri bat: aurrekontu-zuzkidura handiena jasotzen duen kultura-modalitateari erreparatuta (sorkuntza-produkzioa), laguntzaren zenbatekoak gora egin ahala, behera egiten dute emakumeen eskaera kopuruak eta haien emandako laguntza kopuruak. 2015ean, emakumeek 5.000 euroko hamar dirulaguntzetatik bost eskatu zituzten, eta 8.000 euroko hamar dirulaguntzetatik lau. 12.000 euroko bekak eskatu zituztenen artean soilik % 27 dira emakumeak. Haatik, emakumeek eskatzaileen masan duten pisua kontuan izanik legokioketena baino proportzio handiagoan eskuratzen dituzte laguntzak: 5.000 euroko laguntzen % 58 jaso zituzten, 8.000 euroko laguntzen % 45,9 eta 12.000 euroko laguntzen % 28,6.

Oro har, edozein laguntza mota eskatzeko garaian, oraindik ere agerikoa da genero-desberdintasuna, hainbat modutan adierazten dena. Deigarria da oso emakumeek gizonak baino dirulaguntza eta bestelako laguntza gutxiago eskatzea kultura-eremuan; hala, zenbait joera adierazten ditu horrek: emakumeak ikasketak uzten edo beste lan-irteera batzuk bilatzen hasten direla prestakuntza amaitu eta berehala, gizonak baino konfiantza gutxiago dutela beren buruarengan, eta kalitate handiko proiektua dutela uste dutenean bakarrik eskatzen dituztela laguntzak. **Segurtasunik ez** horrek azaltzen du, era berean, zergatik eskatzen dituzten zenbateko txikiagoko dirulaguntza gehiago eta zergatik diren gizonak gehiengoa zenbateko handiko laguntzetan.

Beste gako batzuek ere eragina izan dezakete, hala nola emakumeek arrisku gutxiago hartu oi dutela edo diziplina teknologikoenetatik urrunago izaten direla. Arte bisualetan onartzen diren beka, dirulaguntza eta bestelako laguntzen kasuan, emakumeek % 57 inguru eskuratzen dituzte; ikus-entzunezko arteetan, aldiz, gutxiengoa dira eta % 20ra ere ez da iristen gidoiak idazteko laguntzak eskatzen dituzten emakumeen ehunekoa.

Beste kasu berezi bat izan da Eremuak programa, hori ere Eusko Jaurlaritzarena, arte garaikideari laguntzekoa. 2013. eta 2015. urteen artean, laguntzak eskatzen zituzten emakumeen kopurua mantendu egin zen. Hala ere, 2013an eskatzaile guztien % 46 ziren eta ehuneko hori murrizten joan zen gizon eskatzaileen ehunekoarekin alderatuta, eta 2015ean, hautatutako emakumeen proiektuak % 36 baino ez ziren izan. 2010 eta 2015 bitartean emakumei emandako dirulaguntzen batezbestekoa % 40,9 izan zen. Ez dago urteko azken deialdietako datu estatistiko eguneratuagorik, baina egile indibidualen edo kolektiboen proposamenen deialdi jarraituan emakumeek ikusgarritasun handiagoa berreskuratzen dutela dirudi.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dirulaguntza berri baten bi deialdi egin ditu artelanak erosteko, Artium Museoaren, Bilboko Arte Ederretako Museoaren eta Tabakaleraren parte-hartzearekin. 2020an, 14 emakumeren, 9 gizonen eta kolektibo baten egiletza zuten 24 artistaren lanak erosi ziren. 2022an abiatutako bigarren deialdian 15 artistaren lanak erosi dira (7 emakume, 7 gizon eta kolektibo bat).

Toki-mailako egoera ezagutzeko, berriz ere 2016ko argitalpenera jo behar da sexuaren arabera bereizitako datuei buruz hitz egiteko: Bizkaiko Foru Aldundiak 2013 eta 2016 artean emandako laguntzen % 63 emakumeei eman zitzaizkien; hala ere, gizonei emandako dirulaguntzen batezbestekoa (4.696 €) handiagoa izan zen emakumeei emandakoena baino (4.466 €). Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzen kasuan, 2013 eta 2016 bitartean emandako bost beketatik lau emakumeek jaso zituzten. Bestalde, Bilboko Udalak emandako bekak (BilbaoArte) modu txandakatuan banatu dira gizonen eta emakumeen artean, 40/60ko proportzioan, 2012tik 2016ra bitartean.

Artista berrientzako laguntza-programetan presentzia-orekarako joera garbi bat ikusten da; are, zenbait kasutan onartutako beka kopurua bat dator ikasketak egiten dituzten emakumeen ehunekoarekin. Nabarmendu behar da laguntza mota horietan emakumeen eskaerak ere gehiago direla. Horrek adierazten du beren ibilbide profesionalaren hastapenean emakumeek oraindik ez diotela muzin egin artearen munduan ibilbide profesionala urratzeari.

Ertibil-Bizkaia programak pintura, grabatu, argazkilaritza eta DVD-Bideoaren arloko artistak laguntzen ditu udalaren erakusketa-aretoetan. 2013-2016 bitartean 374 eskaera aurkeztu ziren. Horietatik % 56,9 (213) emakumeek eginak; beraz, presentzia handiagoa da azken urteotan. Joera positiboak laguntzak emateari ere eragiten zion; % 60,5 emakumeen obrei dagozkie. **Gipuzkoako Artista Berriak** programak joera positiboa izan zuen 2013-2016 bitartean, emakumeen presentziari dagokionez; izan ere, emakumezkoak hautatutako zazpi artistetako bi izatetik zortzitik bost izatera pasatu baitziren 2015-2016an. Getxoarte programaren testuinguruan, aldiz, emakumeen ordezkariak okerrera egin zuen aldi berean, 2013an hautatutako artisten % 61,3 emakumea izatetik 2016an % 45,2 izatera igaro baitzen.

Atzerriko egonaldietarako laguntzei dagokienez, iturri berak (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016) jakinarazi zuen elkartruckerako eta kanpo-mugikortasunerako programetan sexuen arabera bereizita parte hartzen zela, eta programa horietako batzuk jada ez daudela; esaterako, Wroclaw-Donostia Egoitza izeneko mugikortasun-programa, non 2014tik 2015era onartutako % 66,7 emakumezkoak baitziren. Etxepare Euskal Institutuaren laguntzen kasuan, emakumeak parte-hartzaileen % 53,5 izatea lortzeaz gain, haiei emandako zenbateko ekonomikoa zertxobait handiagoa izan zen (1.218 euroko dirulaguntza batez beste, gizonei emandako 1.129 euroekin alderatuta).

7. taula. Emandako laguntzak 2010-2015 aldiko batezbestekoa

EAEn emandako laguntzak, dirulaguntzak eta bekak (2010-2015 aldiko batezbestekoa)	Emakumeak (%)	Gizonak (%)
Arte plastikoak eta bisualak, Eusko Jaurlaritzarenak	45,8	54,2
Eremuak	40,9	59,1
Bizkaiko Foru Aldundia	63,1	36,9
Gipuzkoako Foru Aldundia	80,0	20,0
Billboko Udala	50,0	50,0
Ertibil-Bizkaia	56,9	43,1
Getxoarte	54,9	45,1

Iturria: Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016)

Ikus-entzunezko sektorean laguntzak Eusko Jaurlaritzatik datoz nagusiki. Emakumeak % 19,7 baino ez dira gidoilarien eskaeren kasuan (izendunak diren bakarrak) eta laguntzen % 24,2 jasotzen dituzte.


Kulturaren Euskal Behatokiaren txostenak emakumezko gidoilari gazteen pisua nabarmentzen du. Hala, erregistratutako laguntza-eskaeren artean emakumeenak soilik % 33,3 ziren arren, 30 urtetik beherako adin-tartean onartutako laguntzetan emakumeei emandakoak % 55,6ra iristen dira. Horrek erakusten du, arte bisualetan gertatzen den moduan, karreraren hastapenetan emakumezko artistek ez dutela ukorik egin eta ez dutela oraindik galdu beren buruarekiko konfiantza, ezta sistemarekikoa ere (gerora, denborak aurrera egin ahala, printzipio androzentrikoetan oinarritzen den sintoma argiak erakutsiko dituen). Emakume gidoilari (ez gazteei) emandako gainerako laguntzetan, emakumeak guztizkoaren % 12,5 baino ez dira.

Interesgarria izango litzateke antzeko azterlan bat egitea, eguneratuagoa, beste sektore batzuetarako; esate baterako, literatura, musika eta arte eszenikoen kasuan. Izan ere, ez dago kulturaren beste sektore batzuetan onartutako dirulaguntzei eta bestelako laguntzei buruzko informaziorik.

Sariak

Dirulaguntzekin eta bestelako laguntzekin gertatzen denaren aurka (normalean hastapenetan babes behar duten artistei ematen zaizkie), sariak ibilbide sendoa dutenei ematen zaizkie, eta emakumeei are zailagoa gertatzen zaie sariak lortzea.

Estatu mailan, 2011-2021 aldian, Espainiako Kultura Sari Nazional nagusiak (Kultura eta Kirol Ministerioa, 2022b) modu desberdinean banatu dira emakumeen eta gizonen artean. Arte plastikoetan, argazkigintzan eta zinemagintzan emandako sariak orekatuta egon diren arren, Espainiako Letren Sari Nazionala zortzi gizoni eta hiru emakumeri bakarrik eman zaie aldi horretan, eta Espainiako Antzerki Sari Nazionala, hiru emakumeri eta bost gizoni (hiru konpainiaz gain). Dantzaren esparrua nabarmentzen da bereziki; izan ere, gehienbat emakumezkoena izan arren, aztertutako aldiko Espainiako Dantza Sari Nazionalak sei emakume eta bost gizon saritu ditu.

1. grafikoa. Espainiako Kultura Sari Nazionalak 2011-2021 sexuaren arabera

Iturria: Espainiako Kultura Sari Nazionalak (Kultura eta Kirol Ministerioa, 2022b).

Beka, dirulaguntza eta bestelako laguntzen azterketan adierazi den moduan, hasieran, EAEn testuinguruan, ia parekidetasuna dago (alde batera utzita emakumezkoak gehiengoa direla arte-eskoletan), baina adindu ahala ibilbidean atzera geratzen dira pixkanaka. Espainian bezala EAEn ere, emakumezko artistak gutxiengoa dira sari horiek guztiak eskatzerakoan. Hori ez da soilik justifikatzen konfiantzarik ezarekin, baizik eta beren ibilbidean zehar gainditu behar izan dituzten oztopoekin, horren ondorioz askok amore eman baitute.

Emakumeei onartutako laguntza kopuruak berdintasuneko aurrerapausoen inguruan baikor egoteko arrazoiak eman ditzakeen arren, lanbide-esperientziak eta denborak agerian utziko dute ilusio soila zela. Dirulaguntzak eta bestelako laguntzak jaso osteko urratsa erakusketak egitea da, horrek ematen baitio lanari ikusgarritasuna; haatik, errealitateak erakusten duenez, EAEn antolatutako erakusketa gehienetan, batez ere, gizonen lanak erakusten dira eta emakume gutxi jasotzen dituzte artista helduei emandako sariak (sari horiek funtsezkoak dira artelanari ikusgarritasuna emateko). Sarien ehunekoak agerian uzten du, ibilbidean aurrera egin ahala, gero eta murriztagoa dela emakumeen presentzia.

Arte bisualen esparruan, emakumeek jasotako sarien batezbestekoa oso txikia da. EAeko sari ospetsuenetako bati erreparatzen badiogu, Eusko Jaurlaritzak ibilbidea aitortzeko ematen duen Gure Artea, 2021ean bi gizon eta emakume bat saritu zituzten. Formula hori errepikatu zen 2020ko eta 2019ko edizioetan. Eta horrek esan nahi du azken hiru urteetan Gure Artea Sarien % 33,3 baino ez direla emakumeentzat izan. Ehuneko txiki hori are txikiagoa da «Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan» txostenean jasotakoa baino (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016); izan ere, txosten horretan, 2000-2015 urteen arteko batezbestekoa % 40,2koa zen. Artearen beste adar batzuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak emandako sariak soilik kontuan hartuta, zifrak are latzagoak dira.

Euskadi Literatura sarietan, urtero euskarazko eta gaztelaniazko literatura-lanetarako eta euskarazko haur- eta gazte-literaturarako ematen direnetan, 2021ean emakume bakarria zegoen zazpi sarituen artean (% 14,3ko ordezkari-tza).

Musika Bulegoa sariek ibilbide laburra dute. 2021eko edizioan hamar sari banatu ziren; tartean, EKE Euskal Kultur Erakundearentzat. Gainerako bederatzia bost bakarlarik (bi emakume eta hiru gizon) eta lau musika-taldek (hiru emakume eta hamabi gizon) jaso zituzten. Beraz, 20 sarituetatik % 25 soilik ziren emakumezkoak.

8. taula. 2021eko Musika Bulegoa Sariak, sexuaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Bakarlariak	2	3	5
Taldeak	3	12	4
Guztira	5	15	9

Iturria: Bertan eginda, Musika Bulegoa Sarien webgunean oinarrituta

Sariketarako **epaimahaien** eta bekak eta laguntzak jasotzeko hautaketa-batzordeen **osaera** erabakigarria izan daiteke horiek emateko garaian; epaimahaietan zenbat eta gizon gehiago egon, orduan eta handiago da artea begirada androzentriko batekin epaitzen jarraitzeko arriskua.

Nahiz eta EAEn indarrean dagoen berdintasun-araudiak (martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 21. artikulua) eskatzen duen diru publikoarekin finantzatutako sarien eta laguntzen epaimahaietan ordezkari-tza orekatua egotea, hori ez da beti betetzen. Hala ere, datu estatistikoek parekidetasunerako joera bat erakusten dute soilik.

Adibidez, Eremuak programan, epaimahaikideen % 40 emakumezkoa izan zen 2010-2015 bitartean; 2013an soilik izan ziren gizon baino emakume gehiago, hamarretik zazpi. BilbaoArte laguntzak hautatzeko, epaimahaikide gehienak gizonetzkoak ziren (2016an, % 75). Aitzitik, urte horretan bertan Ertibil Programako epaimahaiaren osaeran presentzia orekatua lortu zen, eta % 100 emakumezkoa izan zen artista berrien programan.

Egoera ere asko alda daiteke urte batetik bestera. Adibidez, Getxoarte programan, 2015ean emakumeen ordezkari-tza epaimahaietan % 66,6koa izan zen, eta ondorengo urtean ez zen emakumerik egon.

Aztertutako gainerako epaimahaietan, ordezkari-tza-orekarako joera ikusten da, baita emakumeen gehiengorako ere. Adibidez, 2000tik 2015era bitartean, arte bisualen Gure Arte Sarian, epaimahaietan emakumeen batez besteko presentzia % 58,2koa izan zen, eta Musika Bulegoaren Sariak hiru emakume eta bost gizon izan zituzten 2016ko epaimahaietan, eta launa 2017an.

Enplegua eta karrera profesionala

SGAE Fundazioaren «Autoras en el audiovisual, la música y las artes escénicas» (2020) azterlanaren arabera, emakumeen kasuan, Estatuko kultura-sektoreko **jarduerarik ezaren** tasa % 19,5ekoa da, gizonena halako bi ia (% 9,3).

EAEEn, kultura-sektorearekin lotutako karreretan⁵unibertsitate-ikasketak amaitu zituzten emakumeen ehunekoa, 2019-2020 ikasturteko datuen arabera, % 66 ingurukoa zen arren (ikasketa horietan, 410 ikasletik 272 emakumezkoak ziren), EAEko sektoreko enpleguen % 47,3 baino ez dira emakumeenak, Ikuspegiak txostenaren arabera (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019).

Kulturaren Euskal Behatokiaren «EAEko kultura-eremuko enpresen, enpleguaren eta lan-merkatuaren analisia» (2019) txostenean azterketa xeheagoa egin da. Bertan adierazten denez, kultura- eta sorkuntza-industrien (KSI) sektoreko kontratazioen erdiak (guztizkoaren % 51,5) emakumeei egiten zaizkie, eta,aldi berean, adierazten da sektorean erregistratutako eskarien % 57,7 inguru emakumeenak direla. Gainera, 2019ko kontratazioen analisari esker, egindako kontratuak okupazioen arabera azter daitezke, eta nabarmentzekoa da, adibidez, modan kontratatutako % 70,6 emakumeak zirela, baina bideojokoetan edo artisautzan emakumeen kontratuak % 19,3 baino ez zirela izan kasu bakoitzean.

Txosten beraren arabera, KSlen sektorean egindako kontratuen % 95,7 inguru aldi baterakoak dira, software- eta multimedia-diseinuko lanpostuen kasuan izan ezik (non emakumeentzako kontratuak % 28,7 baino ez ziren 2019an) eta bideojokoaren kasuan izan ezik (horietan egindako kontratuen % 58,1 eta % 57,9 mugagabeak dira).

Beste datu paralelo batzuk ere jaso dira sorkuntza-industriei buruzko txostenean (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019). Bertan adierazten denez, sorkuntza-industriaren enplegu osoan, emakumeen presentzia nabarmen aldatzen da sektorearen arabera: beriz ere, emakumeak gehienago dira modan (% 75,1), hizkuntza-industrietan (% 62,7) eta publizitatean (% 56,7); diseinuan (% 48,1), arkitekturaren (% 39,2) eta, bereziki, bideojokoaren esparruan (% 27,4), ordezkaritza txikia dute langileen artean.

Urtebete geroago, 2020ko maiatzean argitaratutako «COVID-19aren eragina EAEko kultura-sektorean» txostenak (Kulturaren Euskal Behatokia, 2020b) erakutsi zuenez, oro har, COVID-19aren krisiak eragin positiboa izan zuen kultura-sektoreko emakumeen enpleguan, % 59,38tik % 66,07ra pasatu zen-eta; gizonen kasuan, ordea, enplegua % 40,62tik % 33,93ra jaitsi zen.

Era berean, Kulturaren Euskal Behatokiaren #kulturazifra 2020 txostenak lan-merkatuari buruzko datuetan adierazten du urte horretan sektoreko kontratazioen erdiak baino gehixeago emakumeenak zirela (% 51,5), eta EAEko kultura-sektorean lan egiten zuten emakumeen ehunekoa ere ehuneko 2 puntu igo zela COVID-19aren aurreko egoerarekin alderatuta; aldiz, enplegatutako gizonen ehunekoa 2 puntu jaitsi zen COVID-19aren aurreko egoeratik ondoko egoerara igarotzean.

⁵ Gizarte- eta kultura-antropologia; Artea; Ikus-entzunezko komunikazioa; Kultura-ondasunen kontserbazioa eta zaharberritzea; Sorkuntza eta diseinua; Artearen historia; Euskal hizkuntza eta kultura; eta Espainiako hizkuntza eta literatura.

Hala ere, iturri beraren arabera, kultura-enplegu publikoan, behinik behin, lanpostuaren araberako enplegu-banaketak segregazio horizontala izaten jarraitzen du. Sektoreko emakumeen enplegua laguntza-lanpostuei eta zeharkakoei lotuta dago (batez ere, garbiketa eta administrazio-laguntza), eta zuzendaritzako, mantentze-lanetako edo segurtasuneko lanpostuetan presentzia nabarmen txikiagoa dute.

Sektoreko emakumeen desabantaila-egoera batez ere **soldata-arrakalan** ikusten da.

Horrela, Estatu mailako 2018ko datuetan oinarrituta, SGAE Fundazioak dio (2020) kultura-industriako generoaren araberako soldata-arrakala % 19,6koa dela; hau da, emakumeen batez besteko soldata, kultura-sektorean, gizonek jasotzen dutenaren % 80,4 da. Eta «Encuesta Anual de Estructura Salarial» lanaren 2019ko datuen arabera (INE, 2020), arte-, jolas- eta entretenimendu-jardueretan lan egiten duten emakumeek 16.235,15 € jaso zituzten urtean batez beste; hau da, gizonek baino 3.149,21 € gutxiago (19.402,36 €/ urte).

EAEko testuingurua antzekoa da. Kulturaren Euskal Behatokiaren arabera (2020b), kultura-eremuan, diru-sarrera gutxien duten tartetean emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa da, eta horrek egiaztatzen du Emakundek (2021) «Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan» argitalpenean zeharka adierazitakoa kultura-eremuan ere gertatzen dela (alegia, EAEko emakumeen eta gizonen arteko batez besteko irabaziaren aldea 7.213 eurokoa dela; hau da, % 22,6ko soldata-arrakala).

Ordainsari-desberdintasun horren arrazoiaren artean daude emakumeek egindako lana sozialki eta ekonomikoki azpibalaratuta dagoela (lan-baldintza okerragoak), emakumeen eta gizonen banaketa desberdina dela lan-merkatuan (segregazio horizontala eta bertikala) edo ugalketa-lanaren banaketan parekidetasunik ez dagoela —etxeko lanak eta zaintzak— (Emakunde, 2021).

Hirugarren arrazoi horri dagokionez, Kultura eta Kirol Ministerioak egindako «Explotación de la Encuesta de Población Activa en el Ámbito Cultural» lanaren arabera (2021b), emakumeek Estatu mailako kultura-enpleguaren % 40,7 betetzen dituzte eta **lanaldi partzialeko** kontratuen % 55,8 dituzte. Enplegu mota hori zaintzarako denbora gehiago izateko asmoz aukeratu ohi da, eta ordainsari hobeko lanpostuetara jotzea zailtzen du.

Bestalde, sektorean emakumeek pairatzen duten **segregazio horizontala**, hein handi batean, emakumeek eta gizonek bete ditzaketen lanei buruzko aurreiritzietatik eratortzen da. Kultura-sektorean, lehen esan bezala, emakumeen presentzia aldatu egiten da modaren eta bideojokoen artean, adibidez. Era berean, kultura-sektoreko hainbat eremuren barruan, emakumeen presentzia nagusi da tradizioz femeninotzat jo izan diren zereginetan (hala nola, administrazioarekin edo artxibozainen, liburuzainen, kontserbatzaileen, antzekoen eta laguntzaileen eremuarekin lotutakoak). Zeregin horietan, emakumeak enplegatuen % 71,1 dira. Aldiz, kultura-sektorean, arte- eta kultura-arloko profesional eta teknikari gisa dihardutenetatik, emakumezkoak % 33,9 dira.

Segregazio bertikalari dagokionez, SGAE Fundazioak (2020) nabarmentzen du emakumeen presentzia urria dela kultura-sektoreko erantzukizun- eta zuzendaritza-postuetan, Estatuan % 27,6 ingurukoa baita. EAEn, kultura-sektorean lan egiten duten emakumeen batezbestekoa % 47,3 bada, **zuzendaritza-postuetakoa** % 35era jaisten da, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostenaren arabera (2019). Bertan adierazten denez, musika-arloan dago emakumezko zuzendarien presentziaren sektoreko ehunekorik txikiena. Bereziki kontzertu-aretoetan (non emakumeek presentzia oso txikia baitute, hierarkia profesionala edozein dela ere) emakume zuzendariak % 1,6 dira, eta disko-merkataritzan ez dago emakumezko zuzendaririk EAEn.

Aztertutako 14 kategorietatik hirutan baino ez dago emakumeen eta gizonen presentzia orekatua zuzendarien artean: arte eszenikoetan, non emakumeak % 44,3 baitira produkzio-zuzendarien artean eta % 47,6 ekoizleen artean, eta liburu-alorrean, % 54,8 baitira liburu-dendetan. Kategoria bakar batek, arte bisualen erakusleak, du emakume zuzendarien ordezkartza handiagoa (% 65,2).

9. taula. Emakumeen ehunekoa zuzendari, teknikari eta kudeaketa-/administrazio-langileen artean, lanbide-kategoriaren eta kultura-sektoreko agente-tipologiaren arabera (2019)

Sektorea	Agentearen tipologia	Zuzendaritza-kideak	Teknikariak	Administrazioa / kudeaketa
Arte eszenikoak	Ekoizlea	% 44,3	% 43,3	% 62,1
	Programatzailea	% 47,6	% 35,6	% 72,4
Liburuak	Editoriala	% 34,5	% 63,7	% 52,3
	Liburu-dendak	% 54,8	% 69,6	% 67
Musika	Programatzaile publikoak	% 26,3	% 61,4	% 66,2
	Sustatzaile pribatuak	% 18,3	% 60,8	% 51,5
	Kontzertu-aretoak	% 1,6	% 0,8	% 1,9
	Bandak	% 20,9	% 21,8	% 50,0
	Diskoetxeak	% 33,5	% 62,0	% 0,0
	Disko-saltokiak	% 0	% 37,6	% 49,9
Arte bisualak	Erakuslea	% 65,2	% 63,8	% 56,1
	Arte-galeriak	% 35,0	% 26,5	% 78,6
Ikus-entzunezkoa	Ekoizlea	% 25,6	% 40,4	% 73,1
	Zinema-aretoak	% 32,0	% 42,5	% 64,9
Guztira		% 35,0	% 42,9	% 63,4

Iturria: Ikuspegiak. Arteei eta kultura-industriei buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa. 2019 (Kulturaren Behatokia, 2022)

Ez dago daturik emakumeen **ekintzaitza**-tasari buruz kultura-sektorean. Erreferentzia gisa, GEM txostenak (2019) jasotzen duen ekintzaitza-jardueraren tasa edo *Total early-stage Entrepreneurial Activity* (TEA) hartzen dugu erreferentzia gisa, eta EAEn 2018an % 4,6koa dela emakumeen kasuan, eta % 5,6koa gizonen kasuan.

Denbora eta zaintza

Eremu pribatuan berdintasun urikoak diren jarduerak mantentzen direnez, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan jarraitzen dute. «Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin» (Emakunde, 2020) analisiaren arabera, emakumeek batez beste 2,1 ordu ematen dituzte etxeko lanetan, eta gizonak, berriz, egunean 1,5 ordu. Aldea handiagoa da mendekotasuna duten pertsonak zaintzeari dagokionez (2,3 ordu egunean emakumeek eta 1,5 ordu egunean gizonak), eta diferentzia 1,4 ordu gehiagora iristen da egunean adingabeko seme-alabak zaintzean (4,7 ordu egunean emakumeek eta 3,3 ordu egunean gizonak).

Txosten berak erantzukidetasunaz jaso dituen EAEko datuek ez dute baikorra izateko arrazoirik ematen: amatasun-prestazioen % 95,6 emakumeek kobratu zituzten eta seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentziak emakumeek eskatzen dituzte gehienbat. Hala, 2019an seme-alabak zaintzeko eskatutako baimenen % 89,6 eta beste senitarteko batzuk zaintzeko eskatutako baimenen % 74,8 emakumeek eskatu zituzten.

Denbora gutxiago izatea, halaber, oztopo da **kultura-arloko ondasun eta zerbitzuetarako** sarbidean; izan ere, argi dago etxeko lanetan eta zaintzan zenbat eta denbora gehiago eman, orduan eta denbora gutxiago dagoela aisialdirako. Hala ere, emakumeek kultura-zerbitzu ia guztien kontsumitzaile nagusi izaten jarraitzen dute, eta horrek erakusten du gizonak baino prestasun handiagoa dutela arterako eta kulturarako.

Denbora gutxiago izateak, garapen pertsonalari ez ezik, **lanbide-karrerari** ere eragiten dio; izan ere, prestakuntza jasotzen jarraitzeko denbora gutxiago dute, baita lan-harremanak lantzeko ere, harreman-sareak funtsezkoak izanik sektorean, non harreman horietako asko ohiko lan-ordutegietatik kanpo egiten baitira: erakusketen inaugurazioak, filmen estreinaldiak, liburu-aurrezpenak eta abar. Horrek lanbide-sustapena eta -garapena zailtzen du, eta soldata-arrakala sakondu egiten du.

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Lanbide-eremuan orain arte aurkitutako desberdintasunen isla da, halaber, kultura-sektoreko goi-karguen eta erabaki-organoen artean emakumeek duten presentzia.

Bada ordezkari-tza-orekara iristeko ahalegina, Eusko Jaurlaritzako sailburuordetzen eta aldundietako zuzendaritzen banaketan ikusten den moduan, baina emakumeak ez dira behin ere beren sailtako arduradun nagusiak. Hiru hiriburu-tako udaletatik —denek dute alkatea gizonetzkoa— Gasteizen bakarrik dago emakume bat Kulturako zinegotzi⁶. Baina kargu politikoetatik harago, panoramak okerrera egiten du ia organismo guztietan. Kultura-arloko erakunde, organismo eta ekitaldi nagusi gehienak gizonak zuzentzen dituzte. Eta museo-tako patronatuak eta kultura-arloko beste erakunde batzuk gizonak zuzentzen dituzte. Egoera ez da hobea unibertsitatean; izan ere, irakasle gehienak gizonetzkoak dira, eta irakasle eta ikertzaileen eskala altuenean edo unibertsitateko katedradunenean, Euskal Herriko Unibertsitate publikoko (UPV/EHU) Arteen eta Humanitateen adarrean, % 26,2 baino ez dira emakumeak ⁷ (Unibertsitate Ministerioa, 2022). Elkarte profesionaletan berdintasunerako joera ikusten da zuzendaritzetako kideen artean, eta hainbatek emakume bat dute presidente.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzako erantzukizun-postuen azterketan ondorengo antzeman da:

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean** gizonetzko sailburu bat, Kulturako gizonetzko sailburuorde bat eta Hizkuntza Politikako emakumezko sailburuorde bat daude. Gainera, zortzi zuzendaritzetatik bost emakumeek betetzen dituzte eta hiru, gizonak.
- Kultura eta Hizkuntza Sailaren mendeko **kultura-organismoetan hau da egoera**: Euskadiko Orkestra (gizon batek zuzendua), Euskal Herriko Gazte Orkestra (gizonetzko zuzendaria), Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (gizonetzko zuzendaria), Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia (emakumezko zerbitziburua) eta Etxepare Euskal Institutua (emakumezko zuzendaria) kontuan hartuta, soilik azkeneko bietan aurkituko ditugu emakumeak buruan; lehenengo hiruetan gizonak daude kargu horietan.
- **Aldundiei** dagokienez, Arabako Foru Aldundian gizon bat dago buruan, emakume bat da Kultura eta Kiroleko foru-diputatua eta beste emakume batek du Kulturako Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundian gizon bat dago buru, Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Sailean ere gizon bat dago buru, eta emakume bat, Kulturako Zuzendaritzan. Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusia gizonetzkoa da, Euskara eta Kultura diputatua emakumezkoa da eta Kulturako Zuzendaritza Nagusiko burua emakumezkoa da.

⁶ Udal bakoitzaren webgunetik ateratako informazioa:

- [Gasteizko Udala](#).
- [Bilboko Udala](#)
- [Donostiako Udala](#)

⁷ Unibertsitate Ministerioaren datuak 2020-2021 ikasturterako

- Lurraldeetako udaletan, gizonetzkoak dira, bai Donostiako Udaleko Kultura eta Euskara zinegotzia, bai Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza zinegotzia, eta bakarrik Gasteizen da emakumezkoa Udaleko Hezkuntza eta Kultura zinegotzia.
- EAEko unibertsitateetako **irakasle eta ikertzaileei** dagokienez, Unibertsitate Ministerioaren 2020-2021 ikasturteko estatistiken arabera (2022), EAEko unibertsitate publikoetako Humanitate eta Arteetako fakultateetan eskolak ematen dituzten 455 irakasle eta ikertzaileen artean 238 gizonak dira eta 217, emakumeak; hau da, irakasleen % 47,7 emakumeak dira, baina EAEko unibertsitate publikoetako katedradunen artean soilik % 26,2 dira emakumeak, lehen esan bezala.
- Euskaraz idazten duten emakumezko idazleen errekonozimenduaren nondik norakoak kokatzeko, erreparatu diezaiozun **Euskaltzaindiari**: 2017an, 27 euskaltzainetatik 5 ziren emakumezkoak; hau da, % 27. Azken izendapenak 2018an eta 2020an izan ziren. 2018an, 12 euskaltzain berrietatik 4 soilik ziren emakumeak; 2020an, berriz, izendatutako 6etatik 4 emakumeak ziren.
- Interesgarria da, halaber, **Zientzia, Arte eta Letren Euskal Akademiaren (Jakiunde)** osaera aztertzea. Eusko Ikaskuntzaren ekimenez, eta euskal hizkuntzaren eta kulturaren lurralde-eremuan kokatutako unibertsitateen laguntzaz, 2007an, Donostian, euskal herritarren erreferentzia-foroa izateko sortu zen. Hautatutako kideak 63 dira gaur egun; horietatik, 20 soilik dira emakumeak, eta karguagatiko zortzi kideetatik bi baino ez, eta ohorezko jakitunetatik, bat ere ez.
- **Kontsulta- edo erabaki-organoetan** ere (kultura-erakundeetako patronatuak, adibidez) gehienbat gizonak izaten dira kideak eta haien parte hartzen dute, salbuespenen batekin: Etxepare Euskal Institutuaren Patronatua lau gizon eta zazpi emakumez dago osatuta. Bilboko Arte Ederretako Museoaren Patronatua hamar gizon eta hiru emakumez dago osatuta; Guggenheim Museoaren Patronatua 19 gizon eta bi emakume daude; Artium Fundazioaren Patronatua lau gizon eta sei emakume, eta, azkenik, Euskadiko Gazte Orkestrako Patronatua emakume batek eta gizon batek osatzen dute.

Patronatuen osaeratik haratago, **kultura-guneetako** goi-zuzendaritzako postuetan (museoak, auditoriumak, kultura-zentroak, antzokiak) emakumeak gutxiengoak dira. Horrela, eta EAEko museo nagusien zuzendaritzan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua den arren⁸ (hiru emakume eta bi gizon) —adibidez, Artiumen (Gasteiz) emakumezko zuzendari bat dago, Bilboko Arte Ederretako Museoan zuzendaria gizonetzkoa da, Bilboko Guggenheimek ere gizon bat du buru, eta Arabako

⁸ Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin bat, «osaera orekatu gisa ulertuko da emakumeen eta gizonen presentzia, noiz eta, kasu bakoitzean erreferentziazat hartzen den osotasunean, sexu jakin bateko pertsonak ez direnean 100eko 60 baino gehiago, ezta 100eko 40 baino gutxiago ere (lehen xedapen gehigarria)».

Arte Ederretako Museoak zein Donostiako San Telmo Museoak emakume bana dute zuzendaritzan— beste gune kultural batzuetan emakumeek ordezkariak txikia dute zuzendaritza-postuetan. Horixe gertatzen da Euskadiko Filmategian, non zuzendaria gizonekoa baita; EAEko bost antzoki nagusietatik lau gizonek zuzentzen dituzte —Arriaga Antzokia (Bilbo), Victoria Eugenia Antzokia (Donostia), Campos Eliseos Antzokia (Bilbo) eta Antzoki Zaharra (Donostia)—, eta Gasteizko Principal Antzokia da gaur egun emakume batek zuzentzen duen bakarra. Euskaltzaindiak ere ez du inoiz emakumezko lehendakari izan.

Lurraldeko arte-zentro eta erakusketak-areto nagusiei dagokienez, emakumeen eta gizonen presentzia zertxobait orekatuagoa da. Horrela, BilbaoArte, Tabakalera edo Bilboko Rekalde Aretoa emakumeek zuzentzen dituzte, eta beste batzuek, Gasteizko Montehermoso kultur guneak eta Bilboko Azkuna Zentroak, esaterako, gizon bat dute buru. Hala eta guztiz ere, EAEko kultura-ekitaldi nagusietako zuzendaritza erabat dago gizonen esku: DSS2016 Fundazioan (Donostia Kultura Hiriburua), Donostia Zinemaldian, Jazzaldian, BBK Live Jaialdian edo Azkena Rock Jaialdian gizonak daude buru.

- EAEko emakumeen presentzia eta partaidetza sektoreko **elkarte eta elkargo profesional** nagusietan aldatu egiten da diziplinaren arabera. Euskal Idazleen Elkarteko presidentea eta presidenteordea emakumeak dira, baina Zuzendaritza Batzordeko gainerako lau kideak gizonak dira. Musikari, Euskal Herriko Musikarien Elkarteko presidentea emakumea da eta Zuzendaritza Batzordea emakumeek bakarrik osatzen dute. Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionalak, zuzendaritzan, emakume bat du lehendakari, eta lau gizon eta emakume bat. Musikagileak, Hego Euskal Herriko musika-sortzaileen elkarteak emakumezko presidenteorde bat du eta emakumezko kide bat, Zuzendaritza Batzordeko sei kideen artean. EAEko Ikus-entzunezko Enpresen Klusterrak hiru kide emakumezko ditu Zuzendaritza Batzordean, eta Zineuskadik emakumezko presidentea du eta sei emakume (diruzain bat, bazkide bat eta lau arduradun) eta lau gizon (idazkari bat eta hiru bazkide) Zuzendaritza Batzordean. Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteko presidentea emakumezkoa da, eta hiru emakume (idazkari bat eta bi kide) eta hiru gizon (lehendakariorde bat, diruzain bat eta kide bat) osatzen dute Zuzendaritza Batzordea.
- Azkenik, gutxi dira **berdintasun-sustapeneko erakundeak kultura-sektorean**. Dena den, Espainiako MAV elkartearen (Arte Bisualetako Emakumeak) jarduera nabarmendu behar da, zeinen EAEko atalak hainbat kanpaina egiten baititu museo eta arte-zentroetan. Estatuan, Clásicas y Modernas, kulturaren genero-berdintasuna sustatzeko elkarteak eta CIMA, Zinemagintzako eta Ikus-entzunezkoetako Emakumeen Elkarteak lanean dihardute.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Eremu pribatuan, **ugalketa- eta ekoizpen-lanketa eta -funtzioen** banaketaren pisua, aurrerapen txikiekin bada ere, emakumeen bizkar geratzen da oraindik ere gehienbat. Aurreko atalean ikusi den moduan, emakumeak arduratzen dira nagusiki familia-ingurunea artatzeaz eta etxea kudeatzeaz. Horrek kulturaren bidezko garapen pertsonal handiagoa ekiditen du. Sektoreko profesionalen kasuan, arte- eta kultura-eremuko jarduera profesionalari eskaintzeko denbora gutxiago izatea dakar, baita sustapen-aukera gutxiago izatea ere.

Androzentrismoak kulturaren duen eraginaren ondorioz, hots, gizona mundua irudikatzen duen subjektu gisa azaltzearen ondorioz, kultura-eremuko emakumeek entzungor egin zaie eta ikusezin bihurtu dituzte, mende luzez, gizonezkoen sorkarien mesedetan. Horrek azaltzen du zergatik antolatzen diren gizonezkoen erakusketa gehiago, baita arte garaikidea jorratzen duten zentroetan ere. Munduko museo guztietako bildumetan gizonen lanak gailentzen dira: adibidez, WomenNOW plataformaren arabera (2020), Pradoko museoak emakumezkoen 11 lan —bost emakumerenak— baino ez ditu museoaren aretoetako 1.150 lanen artean; era berean, gutxiengoak dira oraindik ere museo nagusietan emakumezko artistei eskainitako erakusketak. Hori dela eta, museoetan ikusten ditugun emakumezko irudiak ere gizonek sortuak dira; emakumeek oso gutxitan eman zaie haien historia kontatzeko aukera.

Ezagunak eta ugariak dira **artista-bikoteen** honelako kasuak: **emakumea behartuta sentitu da protagonismoa bikotekideari utzi** eta bigarren mailan geratzera, gizonaren luzimendu eta arrakastaren mesedetan; hala, sarri askotan, kasu horietan, emakumearen izena «Xren bikotekidea» aipamenari lotuta joaten da. Hor ditugu, besteak beste, Camille Claudel eta Auguste Rodin, Lee Krasner eta Jackson Pollock, Sonia eta Robert Delaunay, eta Frida Kahlo eta Diego Rivera. Beste arte-eremu batzuetan dauzkagu Simone de Beauvoir eta Jean Paul Sartre, Ana Magdalena eta Johann Sebastian Bach edo Alma eta Gustav Mahler. Hori gainerako arteetara ere eraman daiteke, asko dira-eta gizonezkoen goitizenekin sinatu behar izan duten emakumezko idazleen kasuak; Brontë ahizpak, Amantine Dupin (George Sand izenarekin ezaguna), Mary Ann Evans George Eliot izan zen eta, Espainian, Cecilia Böhl de Faberrek Fernán Caballero izenarekin sinatzen zuen. Eta aipatutako izenei erreparatuta hori iraganeko kontua dela pentsa dezakegun arren, ezinbestez ekarri behar da gogora Harry Potter sagako egile J.K.Rowling idazlearen kasua; izan ere, 1990eko hamarkadan, haren argitaletxeak gizonezko baten izenarekin sinatzeko eskatu zion, ez baitzuten uste haur eta gazte literaturako publikoa emakume batek idatzitako liburuak erosteko prest egon zitekeenik.

Aipatzekoa da, halaber, teoria feministaren arabera, historian barrena emakume artista askok ez dutela beren ekoizpena sinatu, horrela beren identitatea ezkutatu ahal izateko, beldur baitziren garaiko aurreiritziak beren obra artistikoa garatzeko oztopo izango zirela. Virginia Woolfek tesi hau defendatzen du *Gela bat norberarenean* lanean, honako hau esanez: *Eta ausartuko nintzateke esatera poema sinatu gabe asko eta asko idatzi zituen Izengabe hura emakumea zela.*

Agerikoa da oso gutxi direla, ikusgarri behintzat, zinema- eta antzerki-zuzendari eta dramaturgo eta gidoilari edo musikari emakumezkoak, mende luzez horien sorkuntzak irudikapen eta ekoizpen artistikorako modukoak ez zirela uste izan baita. Azken urteotan asko bultzatu da emakumeek idatzitako literatura, baina funtsean merkataritza-arrazoi baten ondorio da; alegia, liburu-merkatua gogobetetzea, non emakumeek kontsumitzen duten gehien. Baina presentzia hori ez da, ondoren, aitortzen eta kritiketan islatzen, ezta eskuliburu akademikoetan edo sari-banaketetan ere. Halaber, garrantzitsua da nabarmentzea arte-kritikari gehienak gizonak direla. Horrek are gehiago zailtzen du emakumeek egindako artea ikusgarri ipintzea.

Ikastetxeek ez dute laguntzen irudi historiko horiek zabaltzen edo berreskuratzen, ezta arte garaikidea berdintasun-irizpideen arabera azaltzen ere. Artearen historia mende luzez idatzitako kanonei jarraikiz ikasten da oraindik ere, testuliburuetan ahaztura historiko hori mantendu egiten da eta klaustro-erabakiak hartzen dituzten unibertsitate-irakasle gehienak gizonezkoak direnez, kulturaren ikuspegi androzentrikoa mantendu egiten da.

Horrenbestez, EAEn kultura-ekoizpen eta -prestakuntzako zentroak sistema desberdinezalea betikitzen ari dira, zeinetan emakumeak azpiordezkatuta baitaude. Kulturak eta arteak lurralde baten iruditeria osatzen badute, beharrezkoa da begirada zabaltzea, emakume artistak zein genero-ikuspegia barne hartuta, gizarte berdinezaleagoa izateko.

Genero-**estereotipoak eta -aurreiritziak** oraindik ere oso agerikoak dira kultura-esparruan. Historikoki emakumea baztertu egin izan da esfera publikotik eta etxeko esparrura eta ugalketa-zereginetara mugatu izan da. Joera horrek pisu handia du oraindik ere gaur egungo gizartean, ikasketen hautua eta ondorengo lanbide-karreraren diseinua baldintzatuz. Horrek, hein handi batean, azaltzen du emakumeak gehiengoa izatea arte eta humanitateetan; ikaskuntza horiek «emakumeentzat egokiagozat» hartu izan dira beti, eta eskola eta familietatik ikasketa horien alde egitera bideratu dira emakumeak. Kezkagarria da, era berean, emakumeen lehentasunen artean, karrera teknikoagoak eta zientifikoagoak ez izatea. Aurreiritzi hori arte-esparruan ere badago, bereziki ikus-entzunezko arteetan; izan ere, argi eta soinuen lanbide teknikoetan, makinista-postuetan edo museo eta agertokietako muntaketa-lanetan gizonak dira gehiengoa. Aitzitik, museoetako erakusketetako koordinatzaile edo komisario gehienak emakumeak izaten dira, antolaketa eta komunikaziorako trebetasunak eskatzen dituen eginkizun modura hartzen da-eta (sozialki, femeninoak diren tasunak).

Behin ikasketak amaituta, humanitateetan lizentziatzen diren emakumeek gehien hautatzen duten irteeretako bat irakaskuntza da; izan ere, lanbide horrek artistaren karrera ezegonkorra baino segurtasun handiagoa eskaintzen du eta kultura-kudeaketak baino lanpostu gehiago ere bai. Gainera, familia-bizitzarekin kontziliazio handiagoa ahalbidetzen du. Hori emakume gehienek betebeharrak propio gisa dute barneratuta eta horren erakusle da amatasun-baja, eszedentzia eta lanaldi murriztu ia guztiak emakumeek eskatzea. Kultura-arloko lanbide askok lanaldi luzeak, ordutegi irregularrak eta kanpora joateko premia dakartzate. Horren ondorioz, ez da erraza izaten lan horiek eremu pertsonalarekin eta familiakoarekin uztartzea.

Aurreiritzi horien ondorioz, era berean, emakumeek sortutako lanak gutxietsi egiten dira. «Arte femeninoa» terminoa zentzu gutxiesgarrian erabili ohi da kasu gehienetan eta laguntzen du arte-merkatuak ere emakumearen lana gutxiesten, hainbeste, ezen gizonetzko artistek egindakoaren truke ordaintzen dena baino hamar bider gutxiago kotizatzen iritsi baitaiteke. Antzeko zerbait gertatzen da literaturarekin. Emakumeek idatzitako liburu gehienak «*chic lit*» kalifikatzen dira, edo kasurik onenean «literatura femenino» modura, eta horrek beti literatura eskasagoaren kutsua izaten du.

Nabarmenezkoa da adingabeko neskatok beren egunerokotasunean ez dutela erreferente femininorik; kultura-arloko informazioa urria da eta ekitaldi nagusien berri baino ez da ematen ia-ia (ikus duzun moduan, gizonak izaten dira gehienetan horietako zuzendari eta protagonistak). Musika da, ziurrenik, gazteak gehien erakartzen dituen jardura. Baina emakumeen ordezkari buruzko atalean ikusi duzun moduan, 2022an Estatu mailako sei jaialdi nagusietan parte hartuko duten artisten artean, % 27,4 baino ez dira emakumezkoak. Horrek mezu jakin bat igortzen du: hots, rocka, popa eta gaur egungo musikaren adierazpide guztiak gizonentzat direla oraindik ere. Ideia hori berretsi egiten da jardun kultural modura musika jotzen duten gizonen ehunekoa erakusten duen datuari so: % 20,6. Emakumeak % 8,2 dira, Kulturaren Euskal Behatokiaren Kultura-ohituren 2020ko Panelaren arabera.

Kultura-industrietan lan-arloko presentzia txikiagoa da emakumeen kasuan, modalitate artistiko guztietan ere egile gisa presentzia txikiagoa da eta botere-zentroetan emakumeen ordezkari beti txikiagoa da. Egoera horrek azaltzen du emakumeek bizitza kulturean ikusgarritasun handirik ez izatea. Eta ikusgarritasuna dutenean, gehienetan gizon baten mende dagoen emakume bat irudikatzen da, paper garrantzitsurik betetzen ez duena. Horrelako zoru beharatuekin, zaila da gizartearen aitortza eta aitortpen ekonomiko egokia lortzea.

Emakumeek kulturean duten irudiarri dagokionez, garrantzitsua da **indarkeria matxistaz** hitz egitea. Historikoki, emakumeak hainbat arte-irudikapenetako eta kultura-eremuko beste alor batzuetako protagonistak izan dira. Hala ere, kultura-adierazpen horietako askok emakumea objektu gisa irudikatu dute, hipersexualizatuta eta/edo ikuspegi androzentrikotik begiratuta. Irudi hori gaur egunera arte iritsi da eta nabaria da kultura-adierazpide askotan, publizitatean, zinemagintzan, antzerkian, musikan eta abarretan, gizartean dauden balio patriarkalen isla gisa. Emakumeen aurkako indarkeria ere hainbat forma artistiko eta kulturetan irudikatu da.

Hainbat ikerketak indarkeria matxisten eta kulturaren arteko harremana aztertuta dute. «Música y violencia de género en España. Estudio comparado por estilos musicales» ikerlanak (Hormigos-Ruiz et al., 2018) ondorioen artean dioenez, *gure gizartean gehien zabaltzen diren musika-estiloetan mezu jakin batzuk jasotzen ditugu etengabe, non emakumeen gorputza merkantilizatu, eta emakumeen mendekotasuna eta gizonen nagusitasuna sustatzen baita, eta indarkeria ezkutuan eta/edo agerian bultzatzen ere iritsi daitekeen.*

Arte-arloan, Pradoko museoan emakumezko artisten lanen presentzia txikia izan arren, lehen esan bezala, emakumeak dira protagonista koadro askotan. Hala ere, gehienetan, emakumeak dekorazio-objektu soil gisa erretratatzeko dira, edo istorio lazgarrien protagonista dira; hala nola bortxaketak, hilketak edo indarkeria matxista (historian normalizatu diren egoerak). Adibide bat Sandro Botticelliren *Nastagio degli Onestiren istorioa* koadroa da, zeinak erakusten baitu nobleziako gizon bat emakume bat krudelki hiltzen, hark arbuiatua izan ondoren (WomenNOW, 2020).

Kultura-eremuan berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko hainbat ekimen sortu dira. 2009an, *Berdinsarea* sarearen barruan (berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka lan egiten duten udalen sarea), *Beldur Barik* programa sortu zen. Berdinsarea-Eudelek eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak sustatu zuten, EAEko beste erakunde batzuen artean, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak antolatu zuen. **Beldur Barik programaren helburu nagusia gazteen artean indarkeria matxista prebenitzea eta gizarte berdinzale baterantz aurrera egitea da.** Programaren gakoetako bat ikus-entzunezkoen lehiaketa bat da, gazteek emakumeen aurkako indarkeriaren eta desberdintasunaren aurrean duten erreakzioa erakustea helburu duena. 2016tik aurrera, gainera, Beldur Barik Gunea ekimena jarri zen abian, jai- eta aisialdi-testuinguruetan sexu-erasoak prebenitzera bideratua.

Beste ekimen garrantzitsu bat *Violencias* (Woman Art House, 2022) argitalpena da. Argitalpen horrek Woman Art Houseren lan guztiak biltzen ditu, gai orokor gisa emakumeen aurkako indarkeria izan dutenak, baina berariaz hainbat indarkeria matxista mota jorratu dituztenak; hala nola feminizidioak, tratu txarrak, sexu-erasoak, indarkeria estetikoak edo mikromatxismoak.

Hala ere, aurrerapausoak eta ekimen berdinzaleak gorabehera, agerikoa da oraindik ere ibilbide luzea dagoela kultura-eremuan berdintasuna lortzeko. Horrenbestez, ezinbestekoa da, gizarteak oro har eta kultura-arloko erakundeek zehazki, benetako berdintasuna bultzatzea, iraganeko erreferente femeninoak berreskuratzea, arestian aipatutakoen modukoak, gaur egungo emakumezko egileak bultzatzea eta herri baten historia biztanleriaren erdiak bakarrik ezin duela kontatu ulertzeko moduan heztea.

2.5. BERDINTASUN-ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>Aukera-berdintasuna.</p> <p>EAEko botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte berma dadin emakumeek eta gizonen era berean baliatzen dituztela eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, laboralak, sozialak, kulturalak, ingurumenekoak eta arauetan aitor lekizkiekeen gainerako oinarriko eskubideak, barne dela boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea. Lege honen ondorioetarako, aukera-berdintasuna ezarri behar da, alde batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntu edo hasierako baldintzetan, eta, bestetik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzetan.</p> <p>EAEko botere publikoek irisgarritasun unibertsala ere bermatuko dute, oztoporik edo eragozpenik egon ez dadin lege honen bidez arauturiko eskubideak baliatzeko eta baliabideak erabiltzeko, betiere oztopo horiek ezabatu beharrekoak baldin badira irisgarritasuna sustatzeari buruzko legediaren arabera. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte baliabideetan, zerbitzuetan eta prozeduretan arazoizko doikuntzak egiteko, bat etorritik Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan eta aplikatzekoak diren beste arau eta nazioarteko itunetan ezarritakoarekin.</p>	<p>4/2005 Legea 3.2 art.</p>
<p>Administrazioak sustatutako edo diruz lagundutako edozein sari mota emateko sortzen diren epaimahaiak erregulatuko dituzten arauak, eta kultura- edo arte-funtsak eskuratzeko gaitutako antzeko organoak erregulatuko dituztenek, klausula bat izango dute, hautaketa-epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango dela bermatzeko, guztiak ere trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela. Horrez gain, dena dela, egokitzat jotzen diren beste neurri batzuk ere har daitezke.</p>	<p>4/2005 Legea 20.2 art.</p>
<p>EAEko botere publiko guztiak, beren zuzendaritza-organotako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arau-neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.</p>	<p>4/2005 Legea 23. art.</p>
<p>EAEko administrazio publikoek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea profesionalen, enpresen, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organotan, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikulua azken tartekian aipatutako faktoreak dituzten emakumeen egoera. Horretarako, beste jarduketak batzuen artean, dagozkien dirulaguntzak egokitu ditzakete, emakumeen ordezkariak txikiak izan diren organoetan emakumeen presentzia handitzeko neurriak hartzearen arabera.</p>	<p>4/2005 Legea 24.1 art.</p>

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
EAEko administrazio publikoek ezin izango diete inolako laguntzarik, babesik edo aitorpenik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan- jardunean sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarte edo erakundeei.	4/2005 Legea 24.2 art.
Euskal administrazio publikoek lege honetan aurreikusitako xedeak lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteei eta antolakundeei laguntza emango diete, eta entitate horiekin, lankidetzan aritzeko bide publiko-pribatuak bultzatuko dituzte, adibidez emakumeen etxeekin, emakumeak ahalduz laguntzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak hautemateko eta biktimei lagun egiteko guneak errazteko.	4/2005 Legea 24.3 art.
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapen-esparruan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeak onura publikokotzat deklaratu ahal izango dira, erakunde bakoitzaren forma juridikoari dagokion legeria berezian ezarritakoari jarraikiz.	4/2005 Legea 24.4 art.
EAEko administrazio publikoek mekanismoak, denborak, guneak, ekipamenduak eta gaikuntza-prozesu irisgarri eta egokiak jarriko dituzte, hartara bermatzeko emakumeek, haien administrazio-egoera edozein delarik ere; mugimendu feministak; sindikalismoak eta elkartegintza-mugimenduak parte hartzen dutela politika sozial, laboral, ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak garatzen, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikulua azken tartekian aipatutako inguruabarrak dituzten emakumeen beharrak. Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko administrazio publikoekin elkarriketan aritzeko bideak antolatuko dituzte, besteak beste, entitateak sortuz eta kogobernantza ereduak bultzatuz.	4/2005 Legea 24.5 art.
EAEko administrazio publikoek, zeinek bere eskumen-eremuan, behar beste neurri hartu behar dituzte, bai sexuan oinarritutako diskriminazio oro saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan. Lege honen ondorioetarako, kultura-jardueratzat hartzen dira, besteak beste, artistikoak, jai-giroan egiten direnak, oroitzapenezkoak, kirol-jarduerak eta euskararen hizkuntza-normalizazioaren arloan egindakoak. Debekatu egiten da gune publikoetan emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egitea.	4/2005 Legea 25.1 art.
EAEko administrazio publikoek ezingo dute inolako laguntzarik eman eta haien ordezkariak ezingo dute ordezkari gisa parte hartu sexuan oinarrituta diskriminatzen duen zein emakumeenganako gorrotoa sustatzen duen ezein kultura-jardueratan. Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea eta estereotipoak gainditzea bilatzen duten jardueretan parte hartzea sustatuko da.	4/2005 Legea 25.2 art.

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAU/ARAUAK
<p>EAEko administrazioek publikoek bultzatu egin behar dute gizarte-memoria egitea eta berreraikitzea genero-ikuspegitik, bai eta memorializazio-prozesuak ere. Horretaz gain, berdintasunaren aldeko kultura-politikak sustatuko dituzte, ondareari eta kulturari emakumeek egin dizkieten ekarpenak ikusgai egiteko eta estereotipo eta aurreiritzi sexistak gainditzen laguntzeko; eta emakumeen presentzia sustatu behar dute, emakumeek ordezkari txikiak duten eremuetako erakusketa eta ekoizpen artistiko eta kulturaletan. Horretarako, beste neurri batzuen artean, parte hartzeko eremu zabalak eta laguntza publikoak ezarriko dituzte, edo daudenak egokituko.</p>	<p>4/2005 Legea 25.3 art.</p>
<p>Bereziki, EAEko administrazio publikoek bultzatu egin behar dute funts publikoekin finantzatutako museo eta arte-zentroetan:</p> <p>a) Genero-ikuspegia txerta dadila haietako hezkuntza-programetan, bisita-programetan eta bestelakoetan, eta, bereziki, haur eta gazteentzako programetan.</p> <p>b) Genero-ikuspegia txerta dadila erosketa-irizpide eta -protokoloetan eta obrak eskuratzeko lehentasun-ildoetan, bai eta erakusketa-politikan ere, horrela lortuko baita emakumezko artisten erakusketak ugaritzea eta emakumeen eta gizonen ordezkari orekatua izatea.</p> <p>c) Ordezkaritza orekatua susta dadila erabakiak hartzeko egitura guztietan; besteak beste, patronatuetan, batzorde artistikoetan eta epaimahaietan.</p>	<p>4/2005 Legea 25.4 art.</p>
<p>EAEko administrazio publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan, bai aisialdian, bai lehiaketetan, emakumeek eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko EAEn egiten diren praktika eta jardueretan.</p>	<p>4/2005 Legea 25.5 art.</p>
<p>EAEko administrazio publikoek kirol-jarduerak estereotipoetan oinarritu gabe hautatzea sustatuko dute, bai eta emakumeen zein gizonen kirol-jarduerak babestea ere, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. Era berean, bermatuko dute badaudela laguntza gehienbat emakumeek praktikatzeko dituzten kirol-modalitateetarako, eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna dagoela sariak eta aitortpenak ematerakoan.</p>	<p>4/2005 Legea 25.6 art.</p>
<p>Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, bermatuko dute edukietan genero-ikuspegia sartzen dela; horrez gain, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta bi sexuen presentzia orekatua eta irudi plurala bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen funtzioei buruzko estereotipo sexistetatik aparte; bereziki zaindu behar dituzte haur zein gazteentzako edukiak, eta 3.1 artikulua azken tartekian aipatzen diren diskriminazio anizkoitzeko inguruabarrak dituzten emakumeekin lotutako aurreiritzi eta estereotipoak desagaitzea.</p>	<p>4/2005 Legea 26.3 art.</p>
<p>EAEko administrazio publikoek adineko emakumeen ongizatea eta gizarte-babesa zainduko dute, eta adineko emakumeek bizitza politikoa, ekonomikoa, sozialean eta kulturean parte har dezaten sustatuko dute.</p>	<p>4/2005 Legea 45.3 art.</p>
<p>Aisialdian eta bizitza sozialean emakumeek eta gizonen emandako denboren arteko aldea murriztea.</p>	<p>1.3.4 Helburu Estrategikoa I. ardatza. 1. programa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 2018-2022</p>

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>Emakumeek eta gizonek ikaskuntzako eta aisiako baliabideetan, artean, kultura eta jaietan duten parte-hartzean ageri den genero-desoreka murriztea.</p> <p>2.3.3 Elkarre-mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako —kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren arlokoak barne—, erakunde politikoetako, sindikatu etako eta enpresa-erakundeetako erabaki postuetan eta guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea.</p>	<p>2.2.2 Helburu Estrategikoa I. ardatza. 2. programa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 2018-2022</p>
<p>Erakundeek eskainitako erantzunak eta baliabideak (zerbitzu sozialak, gizarteratzeak, ekonomikoak, osasuna, hezkuntza, kultura, enplegua, justizia, segurtasuna eta etxebizitza) premia espezifikoak edo pobrezia eta/edo bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden emakumeen beharretara hobeto egokitzea.</p>	<p>4.2.3 Helburu Estrategikoa II. ardatza. 4. programa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 2018-2022</p>
<p>Emakumeak eta gizonak berdinak dira giza duintasunari begira, eta berdinak dira eskubide eta eginbeharrei begira. Legearen xedea da tratu- eta aukera-berdintasunaren eskubidea eragingarri egitea emakumeen eta gizonen artean, batez ere, emakumearen bereizkeria ezabatuz, emakumearen inguruabarrak eta egoera gorabehera, bizitzako edozein esparrutan, eta, bereziki, politika-, lan-ekonomia-, gizarte-, nahiz kultura-esparruetan eta esparru zibilean, Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikulua garatuz, gizarte demokratikoago, zuzenago eta solidarioagoa lortzeko.</p>	<p>3/2007 LO 1.1 artikulua</p>
<p>Lege honen helburuetarako, botere publikoen jardute-irizpide orokorrak izango dira:</p> <p>2. Tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa barneratzea, ekonomia-, lan-, gizarte- nahiz kultura-politiketan eta politika artistikoetan, lan-arloko bereizketak saihestu eta ordainsarien inguruko bereizketak ezabatzeko helburuarekin, eta indartzea emakume enpresaburuen gehikuntza, esparru guztietan, politika guztiak kontuan hartuta, eta emakumeek egindako lanaren balioa, etxeko lanarena barne.</p> <p>11. Administrazio-esparruan sexista ez den hizkera ezartzea, eta hizkera hori suspertzea harreman sozial, kultural eta artistiko guztietan.</p>	<p>3/2007 LO 14.2 artikulua 3/2007 LO 14.11 artikulua</p>
<p>Botere publikoek ahaleginak egingo dituzte, ardurako karguetarako egin behar dituzten izendapenetan emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatuaren printzipioa betetzeko.</p>	<p>3/2007 LO 16. artikulua</p>
<p>Izaera orokorreko xedapen-proiektuak eta berebiziko garrantzia duten plan ekonomiko, sozial, kultural eta artistikoak, Ministro Kontseiluak onetsi behar dituenean, txosten bat izan beharko dute generoan oinarritutako eraginari buruz.</p>	<p>3/2007 LO 19. artikulua</p>
<p>1. Agintari publikoek, euren eskumenen esparruan, zainduko dute emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa eragingarri izatea, sorkuntza eta ekoizpen artistiko nahiz intelektualari eta hori hedatzeari lotutako edozein aldetan.</p> <p>2. Zuzenean edo zeharka, kultura-kudeaketaren sistema egituratzen duten antolakunde, agentzia, erakunde eta administrazio publikoetako gainerako egiturek ondorengo jarduerak gauzatu dituzte:</p>	<p>3/2007 LO 26. artikulua</p>

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAU/ARAUAK
<p>a) Kulturaren emakumeen sustapen bereziaren alde egiteko ekimenak izatea, eta emakumeen bereizkeria, egiturazkoa edota difusoa, borrokatzea.</p> <p>b) Emakumearen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualari laguntzeko politika aktiboak; politika horiek oinarrituko dira izaera ekonomikodun pizgarrietan, aukera-berdintasun eragingarrirako baldintzak sortzeko helburuarekin.</p> <p>c) Eskaintza artistiko eta kultural publikoari dagokionez, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.</p> <p>d) Organigrama artistiko eta kulturean dauden organoetan, halakoak kontsultakoak, zientifikoak nahiz erabaki-hartzaileak izatea gorabehera, ordezkaritza orekatua errespetatu eta bermatzea.</p> <p>e) Emakumeen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualari begira ekintza positiboko neurriak hartzea, nazio-mailako nahiz nazioarteko elkartruke kultural, intelektual eta artistikoa ahalbidetuz, eta hitzarmenak sinatzea antolakunde eskudunekin.</p> <p>f) Orokorrean, eta lege honen 11. artikuluaaren babesean, emakumeen ekoizpen eta sorkuntza intelektual, artistiko nahiz kulturalaren inguruko desberdintasun-egoera guztiak zuzentzeko beharrezkoak diren ekintza positibo guztiak.</p>	
Emakumezko egileen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualari laguntzeko politika aktiboaren garapenean sakontzea, haren hedapenean arreta berezia jarritz.	156. HE III. EGBEPE 2022-2025
Genero-ikuspegia txertatzea lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako eta lanbide-heziketako irakaskuntzen esparruan, kultura sustatzeko diseinatutako ekintzetan.	157. HE III. EGBEPE 2022-2025
Adierazle berriak garatzea, emakumeek kultura-eremuan eta, bereziki, erantzukizun-postuetan duten presentzia hobeto ikusarazteko.	158. HE III. EGBEPE 2022-2025
Emakumeen eta gizonen arteko kultura-ohituretan dauden aldeak gaur egungo kultura-eskaintzarekin lotuko dituen azterlan bat egitea, egon litezkeen desorekei buruzko neurri zuzentzaile zehatzak sartu ahal izateko.	159. HE III. EGBEPE 2022-2025
DEM 4.1. Kultura-eremuko genero-desberdintasunak gainditzeko bidean aurrera egitea DEM.4.2. Historian zehar emakumeen eta mugimendu feministaren lana eta ekarpenak ikusaraztea, aitortzea eta zaintzea	DEM.4 ildoak. III. EGBEPE 2022-2025

OHARRA: Atal honetan, kultura-eremuan eragina duten agindu espezifikoak aipatzen dira, zeharkako berdintasun-tresna juridikoei dagozkienak, eta ez eremuko arau espezifikoari dagozkienak. Lehen aipatutako arauetaz gain, sektore guztietan aplikatu beharreko berdintasun-eremuko aginduak kontsultatu behar dira. Horiek guztiak generoaren arabera inpaktu-txostenak osatzeko material lagungarrien artean dagoen [agindu juridikoei buruzko agirian](#) bildu dira.

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKOA

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa —4/2005 Legea—

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 2018-2022 — VII EGBP 2018-2022 —

IV. Gizarteratze Aktiborako Euskal Plana (2017-2021) —IV. GAEP 2017-2021—

Kultura Plan Estrategikoa 2019-2022 — KPE 2019-2022 —

Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 — EAE 2021-2024 —

ESTATUKOA

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa—3/2007 LO —

2022-2025 aldirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko III. Plan Estrategikoa (EGBEPE) — III. EGBEPE 2022-2025 —

EUROPAKOA

Europa 2030. Erronkak eta aukerak. EBren 2030erako etorkizunari buruzko Gogoeta Taldearen Europako Kontseiluarentzako txostena — Europa 2030 —

Genero Berdintasunerako Estrategia 2020-2025 — GBE 2020-2025 —

EAEko EGfren Programa Operatiboa 2014-2020 — EAEPO GF —

Kulturarako Europako Agenda Europako Batzordearena — KEA 2018 —

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna — EESKNI —

4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKA KOTASUNA
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen presentzia EAEko kultura-sektoreko lanpostuetan 	Ikuspegiak. Arteei eta kultura-industriei buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoak Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> EAEn antolatutako erakusketak, sexuaren arabera. EAEko erakusketen batez besteko ekoizpen-kostua, artistaren sexuaren arabera. Bekak, dirulaguntzak eta laguntzak kultura-eremuan. 	Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan Kulturaren Euskal Behatokia, 2016	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> ARCO nazioarteko erakusketako artistak, sexuaren arabera 	ARCO 2022 txostena Arte Bisualetako Emakumeen Elkarte, 2022	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Goya sarietarako emakumeen hautagaitzak. 	Presencia de las mujeres en los 36 premios Goya Zinemagintzako eta Ikus-entzunezkoetako Emakumeen Elkarte (2021).	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Donostia Zinemaldiko Hautaketa Batzordeak ikusitako filmetan emakumeek duten ordezkari-tza. Emakumeen presentzia EAEn ekoiztutako filmetan. 	Donostia Zinemaldian genero-identifikazioari buruzko txostena Donostia Zinemaldia, 2021	Maiztasunik gabea
ISBN duten liburu erregistratuak, egile bakarra dutenak, sexuaren arabera, estatu-mailan.	Estadística de la Edición Española de Libros con ISBN Kultura eta Kirol Ministerioa, 2021	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz sortzen duten emakumezko egile gazteen kopurua 	EAEn, sorkuntza- eta industria-ikuspegitik, antzerki-, dantza-, liburu- eta musika-esparruan berdintasunak duen egoeraren diagnostikoa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019b	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeak Euskaltzaindian. 	Euskaltzaindia	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeak Espainiako Errege Akademitan 	Académicos de número Espainiako Errege Akademia	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeak eta gizonak Euskadiko eta Bilboko orkestra sinfonikoetan. 	Musika sorkuntzako emakumeen eta gizonen egoera EAEn Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (2020)	Maiztasunik gabea

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKA KOTASUNA
<ul style="list-style-type: none"> Emakumezko artistak 2020an Estatuan egindako musika-jaialdietan. 	<u>Recuento de mujeres en festivales 2020</u> Emakumeak eta Musika Elkartea, 2020	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumezko artistak Estatuko sei musika-jaialdi ospetsuenetan. 	<u>¿Qué lugar ocupan las mujeres en los festivales?</u> Júlia Díaz, 2022	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Estatuan arte-ikuskizunetara joaten den populazioa sexuaren arabera. 	<u>Indicadores estadísticos culturales vinculados a las artes escénicas y musicales y desgloses por sexo</u> Kultura eta Kirol Ministerioa, 2022	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> 2015/2016 denboraldian Estatuan antzeztutako lanen emakumezko egile eta zuzendarien ehunekoa. Estatuan dantza-koreografiaren emakumezko egileen ehunekoa. 	<u>¿Dónde están las mujeres?</u> Clásicas y Modernas, 2017	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Estatuan ekoiztutako filmetako pertsonaiak, sexuaren arabera. 	<u>Estudio de la presencia de la mujer en las producciones españolas de ficción difundidas en televisión y salas de cine de España durante el periodo 2014 – 2016</u> AISGE, 2017.	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Estatuan arte eszenikoetan emakumeek eta gizonen jokaturako paperak. 	<u>Informe Igualdad de las Artes Escénicas; análisis en la programación y equipos directivos</u> CLÁSICAS Y MODERNAS, 2015	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> 2021eko MAX Sarietako kategorian mistoetan saritutako pertsonak. 	<u>Relación de ganadores Premios MAX 2021</u> SGAE Fundazioa, 2021	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> 2021eko Goya sarietan saritutako emakumeen ehunekoa. 	<u>Los Goya con las mujeres</u> Espainiako Zinemagintza Akademia, 2021	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Kultura-kontsumo motaren eta sexuaren araberako pertsonen ehunekoa. 	<u>Kultura-ohiturei buruzko 2020ko Panela</u> Kulturaren Euskal Behatokia, 2020	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> EAEn aisialdi-jardueri eskainitako batez besteko denbora (orduak, minutuak) sexuaren arabera. 	<u>Denbora Aurrekontuen Inkesta</u> Eustat, 2019b	Bost urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> Kultura-eremuarekin lotutako ikasketetako ikasleak EAEn, sexuaren arabera (2019-2020 ikasturtea). Kultura-sektorearekin lotutako ikasketetako emakumeen ehunekoa (2019-2020) 	<u>Unibertsitate-estatistika</u> Eustat, 2021	Urtean behingoa

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKA KOTASUNA
<ul style="list-style-type: none"> Musika, dantza eta arte dramatikoko ikasketetako ikasleak EAEn, sexuaren arabera (2020-2021 ikasturtea) 	<u>Estadística de las Enseñanzas no universitarias</u> Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2022	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> Espainiako Kultura Sari Nazionalak 2011-2021 sexuaren arabera 	<u>Premios Nacionales de Cultura</u> Kultura eta Kirol Ministerioa, 2022b	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> Kultura-sektoreko lanpostuen artean emakumeek betetakoen ehunekoa. Emakumeen ehunekoa zuzendari, teknikari eta kudeaketa-/administrazio-langileen artean, lanbide-kategoriaren eta kultura-sektoreko agente-tipologiaren arabera (2019) 	<u>Ikuspegiak. Arteei eta kultura-industriari buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa.</u> <u>(2019)</u> Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Jarduerarik ezaren tasa, sexuaren arabera Estatuan. Generoaren araberako soldata-arrakala kultura-industrian, Estatuan. Kultura-sektoreko erantzukizun- eta zuzendaritza-postuetan emakumeen ehunekoa estatu mailan. 	<u>Autoras en el audiovisual, la música y las artes escénicas</u> SGAE Fundazioa, 2020	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Kontratazioak EAEko kultura- eta sorkuntza-industrietan, kontratatutako pertsonaren sexuaren arabera. 	<u>EAEko kultura- eta sorkuntza-eremuko enpresen, enpleguen eta lan-merkatuaren analisisa</u> Kulturaren Euskal Behatokia, 2019	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Generoaren araberako soldata-arrakala EAEn. 	<u>Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan</u> Emakunde, 2021	Maiztasunik gabea
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen ehunekoa kultura-enpleguan Estatuan- 	<u>Explotación de la Encuesta de Población Activa en el Ámbito Cultural</u> Kultura eta Kirol Ministerioa, 2021b	Urtean behingoa
<ul style="list-style-type: none"> EAEko emakumeek eta gizonen ugalketa-lanei eskainitako batez besteko denbora (orduak, minutuak) 	<u>Zifrak:Emakumeak eta gizonak Euskadin</u> Emakunde, 2020.	Urtean behingoa

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- Zinemagintza Akademia (2021). Los Goya con las mujeres.
- Zinemagintzako eta Ikus-entzunezkoetako Emakumeen Elkarte (2021).
- Arte Bisualetako Emakumeen Elkarte (2022). ARCO 2022 txostena.
- Emakumeak eta Musika Elkarte, 2020. 2020ko jaialdietako emakumeen zenbaketa.
- Kulturen genero-berdintasuna sustatzeko elkarte —Clásicas y Modernas—, 2015. Azterketa, diagnostikoa eta ondorioak.
- Kulturen genero-berdintasuna sustatzeko elkarte —Clásicas y Modernas—, 2017. ¿Dónde están las mujeres?
- AISGE (2017). Espainiako telebistan eta zinema-aretoetan 2014 –2016 bitartean eskainitako Espainiako fikzio-ekoizpenetan emakumeek izandako presentziari buruzko azterlana.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2019. Ikuspegiak. Arteei eta kultura-industriei buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019b. EAEEn, sorkuntza- eta industria-ikuspegitik, antzerki-, dantza-, liburu- eta musika-esparruan berdintasunak duen egoeraren diagnostikoa.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020. EAEko emakumeen eta gizonen egoera musika-sorkuntzan.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2022. 2021eko Euskadi Literatura sariak.
- Díaz, J., (2022). ¿Qué lugar ocupan las mujeres en los festivales?
- Donostia Zinemaldia, 2021. Donostia Zinemaldian genero-identifikazioari buruzko txostena.
- Emakunde, 2020. Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin.
- Emakunde, 2021. Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Eustat, 2019. Balio erantsi gordina (BEGd).
- Eustat, 2019b. Denbora Aurrekontuen Inkesta.
- Eustat, 2021. Unibertsitate-estatistika.
- Eustat, 2022. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.
- SGAE Fundazioa, 2020. Autoras en el audiovisual, la música y las artes escénicas.
- SGAE Fundazioa, 2021. Relación de ganadores Premios Max.

- Global Entrepreneurship Monitor, 2019. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018-2019ko txosten exekutiboa.
- Hormigos-Ruiz, Jaime, Gómez-Escarda, María, & Perelló-Oliver, Salvador. (2018). Música y violencia de género en España. Estudio comparado por estilos musicales. Convergencia, 25(76), 75-98.
- INE, 2020. Encuesta Anual de Estructura Salarial.
- Kortazar, J., (2021). Escrituras vascas de mujer. Rassegna iberistica aldizkaria.
- Kultura eta Kirol Ministerioa, 2021. Estadística de la Edición Española de Libros con ISBN
- Kultura eta Kirol Ministerioa. Explotación de la Encuesta de Población Activa en el Ámbito Cultural.
- Kultura eta Kirol Ministerioa, 2022. Indicadores estadísticos culturales vinculados a las artes escénicas y musicales y desgloses por sexo.
- Kultura eta Kirol Ministerioa, 2022b. Espainiako Kultura Sari Nazionalak.
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa, 2022. Estadística de las Enseñanzas no universitarias
- Unibertsitate Ministerioa, 2022.
- Pérez, M., 2020. Estudio sobre desigualdad de género en el sistema del arte en España. Unibertsitateetako langileen estatistika. Unibertsitate publikoetako zentro propioetako irakasle eta ikertzaileak, aldagai hauen arabera: autonomia-erkidegoa, kategoria, sexua eta irakaskuntza-adarra
- Kulturaren Euskal Behatokia, 2016. Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan. EAE 2016.
- Kulturaren Euskal Behatokia, 2018. EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta.
- Kulturaren Euskal Behatokia, 2019. EAEko kultura- eta sorkuntza-eremuko enpresen, enpleguen eta lan-merkatuaren analisisa.
- Kulturaren Euskal Behatokia (2020). #kulturazifrak.
- Kulturaren Euskal Behatokia (2020). Kultura-ohiturei buruzko Panela.
- Kulturaren Euskal Behatokia, 2020b. COVID-19aren inpaktua EAEko kultura-sektorean.
- Espainiako Errege Akademia, 2022. Académicos de número
- Woman Art House, 2022. Violencias.
- WomenNOW, 2020. ¿Por qué el Museo del Prado se olvida de las mujeres artistas?.

WEB-BALIABIDEAK

- [Bilboko Udala.](#)
- [Donostiako Udala.](#)
- [Gasteizko Udala.](#)
- [Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia.](#)
- [Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.](#)
- [Arabako Foru Aldundia.](#)
- [Bizkaiko Foru Aldundia.](#)
- [Gipuzkoako Foru Aldundia.](#)
- [Artium Fundazioa.](#)
- [HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.](#)
- [Etxepare Euskal Institutua.](#)
- [Euskadiko Gazte Orkestra \(EGO\).](#)
- [Euskadiko Orkestra.](#)
- [Guggenheim Museoaren Patronatua.](#)
- [Etxepare Euskal Institutuko Patronatua.](#)
- [Euskal Herriko Gazte Orkestraren Patronatua.](#)
- [Bilboko Arte Ederretako Museoaren Patronatua.](#)